

**Iragankortasunaren dinamikaz zubereran: kasu  
adierazpen bikotzekiko baliobiko aditzen ikerketaren  
lehen etapa**

Jean-Baptiste Coyos

► **To cite this version:**

Jean-Baptiste Coyos. Iragankortasunaren dinamikaz zubereran: kasu adierazpen bikotzekiko baliobiko aditzen ikerketaren lehen etapa. *Fontes Linguae Vasconum* 100, Gobierno de Navarra, 2005, pp.633-660. <artxibo-00078531>

**HAL Id: artxibo-00078531**

**<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00078531>**

Submitted on 6 Jun 2006

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

# Iragankortasunaren dinamikaz zubereran: kasu adierazpen bikoitzekiko baliobiko aditzen ikerketaren lehen etapa

JEAN-BAPTISTE *BATTITU* COYOS\*

## 1. IKERKETAREN ABIAPUNTUA: *KASU ADIERAZPEN BIKOITZEKIKO BALIOBIKO ADITZAK, ALDAERA EDO BILAKAERA*<sup>1</sup>

Dakigun bezala hizkuntzak oro aldatzen dira. Bere lanean deskribatzailea hizkuntzaren dinamikaz ohartzen da, hizkuntza homogeneous ez dela. Zubereraren kasuan erran behar da orain hiztunak oro elebidunak direla, euskara batuak eta euskalki auzoa den nafar-lapurarrak gero eta gehiago eragina dutela, familia transmisioa ahultzen ari dela ere. Aldakuntza (bariazio) datuak hizkuntzaren dinamikaren seinale gisa hartuak izan behar dira eta datorren bilakaera izan daitezkeenak, jakinez datuen begiratze bakarrak bilakaera hori zoin izanen den ez duela erakusten.

Euskararen eta noski aztertzen dudana euskalkian, zubereran, bi edo hiru egiturekiko aditz batzu aurki ditzakegu eta horiek adiera berarekin guti gora behera<sup>2</sup>. Aditzaren eraikuntzak parafrasiak dira. Ber adiera badute beraz, edo

\* IKER Euskarari eta Euskal Testuei buruzko Ikerketa Gunea – Baionako CNRSaren UMR 5478.

<sup>1</sup> Lan hau Eusko Ikaskuntzaren beka batez lagundua izan da eta horri esker frantsesezko testu luzeago bat bururatu izan da abenduaren 2004ean. Artikulu honetan bildu ditugun datuak oro ez ditugu aurkeztuko bainan bai emaitza baliagarrienak eta datozen ikerketaren norabideak. *Verbes bivalents à marquage casuel variable pour un même module argumental* deitu nituen aditz horiek aipatu ditut jadanik (Coyos, 1999: 347-350); bainan, orain, ikerketa sistematiko bat abiatzen dut, artikulu honek segida bat ukanen duelarik maila semantikoa aztertuz bereziki.

<sup>2</sup> Adibidez, *igaran* “iragan, zeharkatu” aditzarekiko bi eraikuntza horiek ber adiera ez dutela erranen dugu: *Oihana*<sub>ABS</sub> *igaran düt* “Oihana zeharkatu dut” / *Oihanetik*<sub>ABL</sub> *igaran niz* “Oihanetik iragan naiz”.

hobe errana adierak sinonimoak dira, jakinez bi edo hiru eraikuntza horien ibilbide diatetikoa bera dela ere, erran nahi baita ibilbide aktiboa<sup>3</sup>. Aditz horiek *kasu adierazpen bikoitzekiko baliobiko aditzak*, frantsesez *verbes bivalents à double marquage casuel*, deitzen ditut zeren eta aditz horiek jokutzen ahal dira *izan* edo *\*ediin* aditz laguntzailearekin, izen-determinatzailearen kasua aldatzen delarik.

Lehen egituran, *izan*ekikoan, kasu absolutibo (ABS) eta datibo (DAT) edo instrumental (INST) edo sozietiboarekiko (SOZ) bi izen determinatzailekin jokutzen da aditza: *izan* (ABS+DAT/INST/SOZ)<sup>4</sup>. Bigarren egituran, beraz *\*ediin*ekikoan, kasu ergatiboarekin alde batetik (ERG) eta absolutibo (ABS) edo datiboarekin (DAT) bestetik eraikitzen da: *\*ediin* (ERG+ABS/DAT).

Adibidez, *oritü* [ohíty] «*oroitu*» aditzarekin entzun daiteke:

(1) *Historiaz*<sub>INST</sub> *orit* *n*<sub>ABS</sub>*iz* edo *Historia*<sub>ABS</sub> *orit* *d*<sub>ABS</sub>*üt*<sub>ERG</sub>.

*Oritü*: *izan* (ABS+INST) / *\*ediin* (ERG+ABS).

Era berean *mintzatü* edo *behatü* «entzun» aditzak baditugu:

(2) *Euskaraz*<sub>INST</sub> *mintzatzen* *d*<sub>ABS</sub>*a* edo *euskara*<sub>ABS</sub> (Ø) *mintzatzen* *d*<sub>ABS</sub>*üt*<sub>ERG</sub> (Ø). *Mintzatü*: *izan* (ABS+INST) / *\*ediin* (ERG+ABS).

(3) *Txoriari*<sub>DAT</sub> *behatzen* *n*<sub>ABS</sub> (Ø) *iz* edo *txoria*<sub>ABS</sub>(Ø) *behatzen* *d*<sub>ABS</sub>*üt*<sub>ERG</sub>.

*Behatü*: *izan* (ABS+DAT) / *\*ediin* (ERG+ABS).

Egitura orokorra forma edo semantikaren mailen arabera aurkez nezake era horretan:

• **Aditzaren eraikuntza (aditz laguntzailea eta determinatzaileen kasuak):**

(4 a) *izan* (ABS+DAT/INST/SOZ) ↔ *\*ediin* (ERG+ABS/DAT)

• **Semantika (prozesua eta bi argumetoak):**

(5) *Eragilea*<sub>ABS</sub> + *Jasalea*<sub>DAT/INST/SOZ</sub> ↔ *Eragilea*<sub>ERG</sub> + *Jasalea*<sub>ABS/DAT</sub>

Aldaketa horri buruzko intuizioa gainditzeko deliberatu dut oraiko zuberotar ahozko eta idatzizko testuak aztertu behar nituela, baina ere lehenagoko testuak, ikusteko kasu adierazpen bikoitzekiko baliobiko aditzen eraikuntza horiek oraikoak zirenez ala aspaldikoak, eta aditz horiek bana-banan. Ikerketa hau deitzen ohi den iragankortasunari buruzko ikerketetan kokatzen da<sup>5</sup>, sintaxi eta semantikaren arteko harremenei buruzkoetan beraz, eta bai ere *aldaera* (bariazioa), *bilakaera* (eboluzioa) eta aldaketa linguistikoren sailetan.

<sup>3</sup> Rudolph de Rijkék ibilbide antipasibo bat (*origine antipassive*) susmatzen baldin badu ere bi eraikuntzetarik batean (2002: 302), eraikuntza hau aktiboa dela saiatu naiz frogatzen “Nommer, définir des faits linguistiques: antipassif et sujet, deux exemples en basque” artikuluan (*Lapurdum VIII*, 2003: 126-129).

<sup>4</sup> Erabiliko diren laburdurak horiek dira: ABL = ablatiboa, ABS = absolutiboa, ADL = adlatiboa, DAT = datiboa, er. al. = errespetuzko alokutibotasuna, al. hur. = alokutibotasun hurbila, ERG = ergatiboa, GEN = genitiboa, L. GEN = leku genitiboa, IN = inesiboa, INST = instrumentala, PART = partitiboa, SOZ = sozietiboa, TERM = terminatiboa. Ikerketan aditz iragangaitzak utzi ditugu et bai ere hiru izen-determinatzailekiko aditz iragankorrak. Bizkitartean, ikerketa alor honetan sartzen dira ere zeren eta haietarik zenbaitekin ere ohartzen baita aditz laguntzailea alda daitekeela eta bai ere kasu adierazpena (*marquage casuel, case marking*).

<sup>5</sup> Datorren artikuluan baten, iragankortasun nozioa zein den argituko dut jakinez mementoko aztertzen ditudan *izan* laguntzailearekiko bi izen determinatzaile dituen aditzak iragankortzat hartzen ditudala.

## 2. SINKRONIA DINAMIKOA ETA IKERKETA HIPOTESIAK

### 2.1. Diakroniaren eta sinkroniaren arteko harremanak: *Sinkronia dinamiko*a

Erran bezala hizkuntza bat mugiezina ez da. Hizkuntzak sistema delarik gune orekatu eta desorekatuak baditu. Beraz, aditz mota horri buruzko lana hastapenaren hipotesi orokorra hau da: sinkronian bi egituren arteko lehia-keta bat baita, asmatzen ahal dezakegu bata bestea baino zaharrago dela eta batak bestearen lekua har dezakela. Hizkuntzaren dinamikaren seinalea litza-teke.

Azterketa hori A. Martineten *sinkronia dinamiko*a (*synchronie dynamique*)-ren kontzeptuaren koadroan kokatzen da<sup>6</sup>. Erraten zuen: «Inkestatuak diren hiztun desberdinen pondu bati buruzko erreakzio ezberdinak direnez geroz bilakaera baten izaitea susma dezakegu» (1989: 49). «...sinkronia dinamika bat non, segur, egoera bakarraren aztertzean enfokatzan gira, bainan aldaerak eta haien izate atzerakari ala aurrerakaria ateratzeari inoiz amore eman gabe» (1975: 9). «Egiaz, sinkronia dinamika diakroniara bideratzen gaitu zuzenki, bainan diakronia eraberritura zeren eta hipotesia zatia tipitzen baitu, bilakaera agerpenaren baldintzez zehazki argitzen gaituelarik» (1989: 52).

Lana zen beraz aztertzea orain, sinkronian, egitura batek, \**ediün* aditz laguntzailearekikoak, *izanekiko*aren lekua hartzen duenez edo biak elkarrekin bizi direnez, adinaren arabera. Azken kasu hortan, hiztunaren mailan, egitura hori «gorabehera» bat izan daiteke, hiztunak bi egiturak erabiltzen dituelarik (*fluctuation*, Clairis: 1991). Bainan egitura hori «zalantza» bat izan daiteke ere hizkuntza komunitatearen mailan, hiztun batzuk bi egiturarik bat baizik ez dutelarik erabiltzen eta besteek bestea (*flottement*, Martin: 1988).

Iragan mendeetako zuberotar testuak aztertu ditut ere zeren eta hoiei so egin gabe ez zen posible erratea oraiko bilakaera zenez ala irauten zuen aldaera bat.

Gaingan erran izan dena kontuan hartuz argi da diakronia eta sinkronia ez ditugula nahasiko.

### 2.2. Susmatzen den bilakaeraren hipotesia argigarriak

Aldaera erakutsi eta zaila da preziatzea zerengatik bilakatzen den hizkuntzako gertaera hori. Aldaera horren eragina *hizkuntza ukipena* izan daiteke hiztunak denak elebidunak direlarik, ala zertako ez beste euskararen formen eragina hainbatean, ala *hizkuntzaz kanpoko eragile batzu* bizimoldea eta pentsamoldearen bilakaera bezala, ala zuzenkiago *barneko hizkuntza ekonomiar* lotua den bilakaera bi aditz-eraikuntzak elkarrekin bizi direlaketoz hizkuntza sisteman sinkronian.

Hirugarren hipotesia ausartena da erran nahi baita bizimoldeak edo, hobe errana, pentsamoldeak aldaketa honetan eragina lukeela. \**Ediün*, kasu erगतibo eta absolutiboarekiko egitura hedatuko balitz mundu modernoaren eragina litzateke, egileak leku gehiago hartzen duelarik zeinahi ekintza mota izan dadin ere. Egilearen eginkizuna ez aktibo eta kontrolik gabeko aktantei

<sup>6</sup> Ikus bibliografian idatzi dituen horri buruzko testuak.

emana litzateke. Norabide hori Georg Bossongek Europako hizkuntza akusatiboetan susmatu du<sup>7</sup>.

### 3. ADITZEN BILTZEAK: LAU ITURRI

Aldaera ikusi eta hizkuntza aldaketaren intuizioa behar nuen gaintitu.

Lana izan da egiaztatzea oraiko zubereran kasu adierazpen bikoitzezko aditz horiek zein ziren, adinaren arabera erabileraren neurtzea ahal bada, ahal bezainbatean aditzaren arabera zoin zen bi edo bizpahiru eraikuntza horietarik hautatuena jakiteko<sup>8</sup>.

Sinkronian inkesta idatzi zabal baten bidez aztertu dut zoin ziren 66 zuberotar lekukoren erantzunak (ikus eranskina beheago). Lehenik, ikertzen nituen aditzekiko 23 frantses esaldi euskaratzera bazituzten. Bigarrenik, proposatzen nizekien euskarazko esaldiak sailkatu behar zituzten, *ez*, *bai* eta *hobe* markatuz. 25 aditz ezberdin erabili ditut aukeratu behar zituzten esaldi horietan.

Zuberotar hiztun horiek banatuak izan dira adinaren arabera: 17 haur (9-10 urte bitarteko)<sup>9</sup>, 11 gazte (12-15 urte bitarteko)<sup>10</sup>, 16 heldu (25-64 urte bitarteko), 15 adineko (65 urte eta gehiago) eta Lapurdin bizi diren 7 zuberotar.

Lan honetan lekukoaren adina da aldagai nagusia (Chambers: 355); sexua, sorterrria eta bizi herria, ofizioa, euskararen menpekotasuna, euskara batuaren ezagutza, euskararen ortografiaren ezagutza eta beste aldagai batzu bildu ditut, baina ez ditut baliatu luzeegi litzatekelakotz. Era berean parametro estilistikoak zirenez ez dut ikertu.

Bigarren inkesta bat egina izan da ere beste aditz batzuekin (ikus eranskina beheago). Lekukoak 20 haur<sup>11</sup>, 5 heldu eta 8 adineko ziren. Berriz 25 frantses esaldi euskaratu behar izan zituzten eta amaierazko aspektuan emanik ziren 20 euskal aditz esaldi baten erabili.

Zuberotar ahozko testu batzu aztertu ditut ere, alde batetik grabatuak nituen oren laurden bateko bakarrizketa bat eta oren bateko alkarrizketa bat, eta bestetik bi atlas (1983-1990eko *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa* eta 1999ko *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren antologia*). Hor da segur bildumaren ahulgunea, aztertu ditudan ahozko testuak ugariak ez baitira.

Azken urte hauetako zubererazko hamar pastoral eta hiru liburu hautatu ditut ere ikusteko nola idazle horiek aurkitu nituen aditzak erabilten zituzten (ikus bibliografian).

<sup>7</sup> “La fonction actancielle du sujet perd de plus en plus sa sémantique spécifique au fur et à mesure que des relations non-agentives sont exprimées par cette fonction... On ne voit plus dans l'expérience la cible de quelque chose qui lui vient de l'extérieur, mais la source de sensations ou sentiments... qui sont par conséquent ressentis comme des actions émanant du sujet” (1992: 12).

<sup>8</sup> Anne-Marie Houdebinek *sinkronia dinamiko* kontzeptua zehazten du, alde batetik denbora faktoreari lotua den *dinamika sinkronikoa* sailkatuz, belaualdien arteko desberdintasun linguistikoak kontuan hartzen dituen beraz, eta bestetik beste gizarte-aldagai (sexua, klase soziala, hizkuntza gaitasuna, etab.) lotua den “loditasun sinkronikoa” (*épaisseur synchronique*) sailkatuz (1985: 12).

<sup>9</sup> 2003-2004 ikasturteko Sohütako ikastolako lehen mailako 4. eta 5. klaseetako haurrak oro ziren.

<sup>10</sup> Ber ikasturteko Mauleko Argia kolegio publikoko klase elebidunetako haur batzu. Horietarik zenbaitek euskara ez zuten bat ere ontsa menperatzen.

<sup>11</sup> 2004-2005 ikasturteko Sohütako ikastolako lehen mailako 4. eta 5. klaseetako haurrak.

Diakronian zubererazko liburu batzuekin ber gauza egin dut egiaztatze-ko, mendeen zehar, aditz horiek era berean eraikitzen zirenez eta bai ere idazlearen arabera bi egitura horietarik zein zen erabiliena.

Aztertu ditudan sei liburuak horiek dira: Jean de Tartasen *Ontsa hiltzeko bidea* (1666), Athanase Belapeyren *Catechima laburra eta Jesus-Christ goure ginco jaunaren eçagutcia, salvatu içateco* (1696), Josef Egiategiren *Lehen liburria edo filosofo huskaldunaren ekheia* (1785), Pierre Topet-Etxahunen testuak (1805-1861), erran nahi baita Jean Haritschelhar-ek bildu zituen testuak *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etxahun* liburuan, Jean-Baptiste Archuren *La Fontainaren alegia berheziak* (1848), Jean-Baptiste Constantinen *Haritchabaletaren bizia* (1910) eta *Don Juan eta bere adixkidiak* (1926) elkartuak diren bi testuak.

#### 4. EMAITZAK: ADITZEN AZTERKETA BANAN-BANAN

Orotara bi edo hiru eraikuntzakiko **32 aditz** ateratu ditut. Susma deza-kegu idatzizko testuetan hogeita hamahiru aditz horien agerpenak oro ez ditudala bildu, nere bilduma «eskuz» eginik izan baita eta testu horietarik guti digitalizatuak zirelarik orduan<sup>12</sup>. Pentsa dezakegu ere aditz mota honetarik beste batzu badirela.

Aurkezten dudan ondoko emaitzen sintesi honetan bi izen-determinatzailekiko aditzak eta/edo bi edo hiru «pertsone-indize»-kiko aditz laguntzaileen agerpenak baizik ez ditut emaiten<sup>13</sup>. Beraz, aditz-laguntzarik gabe edo izen-determinatzailearik gabe agertzen baldin bada aztertzen dudan aditzaren agerpena ez dut hemen kontuan hartuko.

##### 4.1. Inkesta diakronikoa

Erran dudan bezala nere datuen biltzeko moldea ohartzuz nere bilduma erabatekoa ez dela segur da. Huts batzu ere egin izan ditzaket datuak biltzen ditudalarik. Bestetik jakina da ere edizioen zehar, berridatzien zehar, testu idatziak alda daitezkeela. Gainera, idazle batek aditz-eraikuntza bat ez badu emaiten ere, ez du erran nahi eraikuntza hori bere idiolektoan ez dela.

Beste ohar bat idazle horien euskaraz, erabilten duten hizkeraz, egiteko da. Edizioen prestatzaileek orok azpimarratzen dute idazleen euskara zuberotarra izanik ere nahasia dela, horietarik salbuespena Jean-Baptiste Constantin delarik. Azken honek Santagraziko zuberera erabilten du<sup>14</sup>. Tartasek alde-rantziz euskara nahasiena dauka.

Azkenean erran behar da ere hautatuak izan ziren idazleak beren mendeko ordezkariak direla ez dugu baieztatzen ahal. Hobe da pentsatzea beren buruarena direla zuberotar idatzikirik aski ez baitugu mende bakoitzaren hizkera zehazki ezagutzeko.

<sup>12</sup> Bigarren inkestaren orduko aztertu nituen sei liburu zaharretarik bost digitalizatuak izan ziren ([www.armiarma.com/klasikoak](http://www.armiarma.com/klasikoak)), Belapeyren *Catechime laburra...* ez zelarik.

<sup>13</sup> Artikulu honen terminologian *-t ikusi dut* adibidean pertsona-indize bat da. *D-* beste bat dela ere onartzen da, jakinez euskalari zenbaitentzat denbora-marka bat baizik ez dela edo adierarik gabeko forma bat (ikus Coyos, 1999: 224-230).

<sup>14</sup> "Hizkuntza aztertuz (...) ohar gaitzke lehen begiradan oso hizkera herrikoia, Santagraziko xuberera aberastua, hain zuzen, darabilela", Patri Urkizu, Aitzinsolasa, *Haritchabaletaren bizia...*: XV. orr.

Horiek oro kontuan hartuz aztertu ditudan sei liburuetako datuak ondo-koak dira.

- *ahatze* “ahantzi”. Bi idazletan baizik ez dut aurkitu. Egiategi (1785): \**ediün* (ERG+ABS); Constantin (XX. mendeko hastapenean): *izan* (ABS+DAT). Emaizta horiek diren bezala hartzen bagenitu susmatzen dugun norabidearen aurka badoatzila erran genezake, eta *ahatze* aditzaren laguntzailearen erabilera \**ediün*-etarik *izan*-era lihoakeela. Baina ezaguna da agerpen bakar bat aski ez dela hizkuntza joera bat egiaztatzeko, eta bai ere idazle bat bakarrik bere mendeko lekukotako ez dugula hartu behar. Idazle bat, lekuko bat, lehen lehenik bere buruaren ordezkaria da.

- *baliatü*. Tartas (1666): \**ediün* (ERG+ABS); Egiategi (1785): *izan* (ABS+INST); Constantin (1926): *izan* (ABS+DAT).

- *behatü* “entzun”. Lau idazlek, XVII. mendetik XIX. mendera, erabilten dute, *izan* (ABS+DAT)-ekiko eraikuntzarekin beti. Baina azkenak (Archu, 1848) \**ediün* (ERG+ABS) eraikuntza ere erabiltzen du. Bilakaeraren indize bat ote da? Sinkroniako emaitzen azterketak erran lezake (ikus 4.2.).

- *doliü* “damutu”. Aditz honekin eraikuntzen aniztasuna azpimarratzekoa da, gehienetan \**ediün*-ekin baina bat ere ez (ERG+ABS)-ekin. *Izan* laguntzailea erabilten duenak (ABS+DAT), Egiategik (1785), \**ediün* laguntzailea ere erabilten du.

- *egari* “erabili”. Hiru idazlek aditz hori beti \**ediün* (ERG+ABS) eraikuntzarekin erabilten dute, XVII. mendetik XIX. mendera.

- *elestatü* “solastatu”. Belapeyrek (1696) eta Archuk (1848) *izan*-ekin erabilten dute. Orain ez da hain argi eta ikusiko dugun bezala \**ediün* laguntzailea agertzen hasten da.

- *garaitü*. Tartasek (1666), Belapeyrek (1696), Egiategik (1785) eta Archuk (1848): \**ediün* (ERG+ABS). Baina ez da osoki hola izanen sinkronian, XXI. mendeko hastapenean.

- *goitü* “garaitu”. Lau idazlek, Tartasek, Belapeyrek, Egiategik eta Archuk, \**ediün* (ERG+ABS) eraikuntzarekin erabilten dute. Bilakaera ez dela susma genezake, hala ere sinkronian *izan* (ABS+DAT)-ekiko eraikuntza agerpen bat aurkitu dut.

- *gozatü*. Egiategik eta Archuk «gorabehera» badute (ik. 2.1): *izan* (ABS+INST) eta \**ediün* (ERG+ABS)-rekiko eraikuntzak.

- *hasi* “zerbaiten lehen zatia egin”. Bi izen-determinatzailekiko eraikuntzak baizik ez ditugu kontuan hartu. Bost idazlek *hasi* erabili dute eta bi aditz laguntzaileak baliatzen dituzte; hala ere *izan* da erabiliena (ABS+INST) edo (ABS+IN)-rekin. Idazle horietarik hiruk bi aditz laguntzaileak erabilten dituzte eta beraz erran daiteke diakronian «gorabehera» eta «zalantza» baditugula *hasi* aditzarekin (ik. 2.1.).

- *hizkatü* “hitzez liskartu”. Archu (1848) bakarra da agerpen batekin: *izan* (ABS+SOC).

- *hügü üken / hügüntü* “higuindu”. Egiategik (1785) *izan* (ABS+DAT) eta \**ediün* (ERG+ABS)-rekiko eraikuntzak baditu, goraberera beraz; Topet-Etxahunek *izan* (ABS+DAT) baizik ez du.

- *iseatü* “saiatu”. Diakronian erabilten duten lau idazleatarik Tartasek (1666) \**ediün* aditz laguntzailearekin baizik ez du erabilten, (ERG+ADL) kasuak direlarik. XIX. eta XX. mendeetan, *izan* da erabilia den laguntzailea, beti (ABS+ADL) kasuekin eta, gehienetan, aditz-izen batekin. Emaizta horiek di-

ren bezala kontutan hartuz baieztatu behar al da bilakaera bat agertzen dela? Erabaki baino lehen ohartarazi behar da Tartasen euskara biziki nahasia zela berak erran zuen bezala.

- *jarraiki* “segitu”. Bost idazlek erabili dute, *izan* (ABS+DAT)-rekiko eraikuntzak gehiengoa duelarik. Batak, Egiategik (1785), \**ediün* laguntzailea baizik ez du erabilten, behin (ERG+DAT) kasu atipikoekin. Beste batek, Belapeyrek (1696), bi aditz laguntzaileak baliatzen ditu. Beraz «gorabehera» badugu azken honekin.

- *kanbiatü* “aldatu”. Egiategik (1785) bi aditz laguntzaileak baliatzen ditu: *izan* (ABS+INST) eta \**ediün* (ERG+ABS), Tartasek eta Archuk azken hau, \**ediün*.

- *min(ez) izan / min üken*. Topet-Etxahunek (XIX. mendea): \**ediün* (ERG+ABS).

- *mintzatü / mintzo* (hizkuntza batez). Egiategik (1785) baizik ez du erabilten, *mintza* eta *mintzo* formekin: *izan* (ABS+INST). Beraz eraikuntza bat baizik ez dugu, baina ez da hola izanen sinkronian.

- *nausitü* “nagusitu”. Idazle batek baizik ez du erabilten, Topet-Etxahunek (XIX. mendea): *Gizunentako<sub>PROL</sub> aisa nausi zirela* «Gizonendako erraz nagusi zirela». Baina adibide honetan *nausi* izena da eta ez aditza (*nagusi izan norbaitendako*). Beraz esaldi hori kontuan hartzeko ez da.

- *oritü* “oroitu”. Bost idazlek erabili dute XVII. mendetik XX. mendera. *Izan* (ABS+INST) eraikuntza kasik bakarra da. Hala ere Topet-Etxahunek (XIX. mendea) \**ediün* (ERG+ABS) eraikuntza behin erabilten du. Honezkero «gorabehera» badugu horrekin.

- *segitü*. Tartasek (1666) eta Topet-Etxahunek (XIX. mendea) erabilten dute \**ediün* (ERG+ABS)-rekiko eraikuntzarekin. Jakin behar da nere adineko lekukoen arabera aditz hori ez dela zuberotartzat hartua, *jarraiki* da erabilia den adiera horrekiko aditza.

- *sinetsi*. Tartasek (1666) \**ediün* (ERG+IN)-rekiko eraikuntza erabili du. Ikus frantses *croire en*. Archuk (1848) \**ediün* (ERG+DAT)-rekiko eraikuntza erabili du baina hori ezohizkoa da. Ikus berriz frantses *croire à*. Erabilera horietan frantsesaren eragina susma dezakegu.

- *so egin / so izan* “begiratu”. Agerpen bat baizik ez dut aurkitu *izan* laguntzailearekin, (ABS+DAT) kasuak direlarik. \**Ediün* aditz laguntzailearekin (ERG+DAT)-rekiko eraikuntza nagusitzen da, baina Archuk (ERG+ABS)-rekiko eraikuntza badu ere (1848: 162). Zer pentsa bigarren kasua lokatiboa delarik? Adibidez: *sogizu hunat* (Constantin: 72). Ohiko semantikaren terminoetan aktante edo zirkunstante batekin tratatzen dugua?

- *trüfatü*. Lau idazlek erabilia da aditz hori XVII. mendetik XX. mendera eta eraikuntza bat baizik ez dugu, *izan* (ABS+INST)-rekikoa. Beraz hemen aldaerarik ez da, ez ere bilakaerarik. Ikusiko dugu beste eraikuntza baditugula sinkronian, beti *izan* aditz laguntzailearekin baina (ABS+DAT) kasuekin, eta beste agerpen bat ere \**ediün* (ERG+ABS)-rekikoa.

- *üdüri/idiüri* “norberaren edo zerbaiten antza eduki”. Bi izen-determinatzailekiko aditz eraikuntzak baizik ez ditut kontuan hartu. Bost idazlek aditz hori erabiltzen dute XVII. mendetik XX. mendera eta eraikuntza mota askotakoa da. Nagusia *izan* (ABS+ABS)-rekikoa da. Kasu berarekin, bi aldiz, eraikuntza atipikoa iduri daiteke. Baina aditz-lokuzio hori, *üdüri izan*, egoera-aditzat hartu behar da baliokidetasun-erlazio bat sortzen duena «X-ek



Y-en antza edukitzen du», « $X \approx Y$ ». Egiategik bakarra da \**ediün* aditz laguntzailerik erabilten duena, (ERG+DAT)-rekiko eraikuntza «*ressembler à*» frantses lokuzioaren kalka litzatekelarik, (ERG+SOC)-rekikoa bigarren eraikuntza duelarik ere. (ERG+ABS)-rekiko eraikuntzarik ez du erabilten Egiategik eta beraz erran dezakegu *üdüri*-ren eranstea ez dela osoki burutua bere *üdüri* \**ediün* lokuzioan<sup>15</sup>.

- *zerbütxatü* “erabili, zerbait edo norbait baliagarri gertatu”. Aditz mailegatu hori bi idazlek baizik ez da erabilia, bata, Egiategik (1785: 191), \**ediün* (ERG+ABS)-rekiko eraikuntzarekin, besteak, Archuk (*zerbitzatu*, 1848: 30), *izan* (ABS+INST) eraikuntzarekin gehienetan. Egiategik \**ediün* laguntzailerik beste idazleek baino maizago erabilten duela ohartzen gara.

## 4.2. Inkesta sinkronian

Zuberotar testu zaharretan itzuli hori beharrezkoa zen. Bainan ikerketa honen helburu nagusia da ikustea nola zuberotarrek XXI. mendearen hastapenean deitu ditudan *kasu adierazpen bikoitzekiko baliobiko aditzak* erabilten dituzten eta, posible balitz ere, asmatzea erabilera horren bilakaeraren norabidea zein litzatekeen.

Bi izen-determinatzailekiko aditzak eta/edo bi edo hiru pertsona-indizekiko aditz laguntzailen agerpenak baizik ez ditudala emaiten ohartarazten dut.

### 4.2.1. 1983-1990, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa*

Atlas hori prestatzeko Zuberoako zazpi herritan inkesta bat bururatu izan da: Altzai, Bildoze-Omize, Domintxine, Eskiula, Etxarri, Larraine, Santa Grazi. Aztertzen ditudan aditzak 569 galderetan ez ziren agertzen, bainan galderen ondotik aurkeztuak diren ahozko testu laburretan aditz horien agerpen batzu aurkitu ditut.

- *ahatzte* “ahantzi”. \**Ediün* (ERG+ABS): Gamere (1986). *Izan* (ABS+DAT): Eskiula, 1986. *Ahazten zita*<sub>DAT</sub>*ziüt*<sub>DAT</sub> «Ahanzten zait (er. al.)»<sup>16</sup>. Eraikuntza honetan eginkizunak alderantzikatuak dira, «Ahanzten dut» \**ediün* (ERG+ABS) eraikuntzari parekatuz. Lehen eraikuntzan, ahanzten duena datiboarekin markatua den pertsona-indizearen bidez agertzen da; bigarrean, ergatiboarekin markatua den pertsona-indizearen bidez agertzen da. Bi eraikuntza horiekien «zalan-tza» bat ere dugula erran genezake (ik. 2.1).

- *gozatü*. \**Ediün* (ERG+ABS): Etxarri, 1980.
- *mintzatü* (hizkuntza batez). *Izan* (ABS+INST): Eskiula, 1980.
- *orit* “oroitu”. *Izan* (ABS+INST): Arrokiaga, 1986.

### 4.2.2. 1999, *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa: Ohiko Euskal Mintzamoldeen Antologia*

166. orrialdetik 186. orrialdera zuberotar ahozko testu batzu badira.
- *ahatzte* “ahantzi”. \**Ediün* (ERG+ABS): Montori/Berorize: 179.

<sup>15</sup> Bainan \**ediün* (ERG+ABS) eraikuntza aurkitu dut Patri Urzkizuk argitaratu duen Jean Espilen XVII. mendeko pastoral zati baten (*Lapurdum*, 2005, IX: 318): *Champoti uduri diçu açhourie emia* “Kantopotik iduri du (+ er. al.) axuri emea”.

<sup>16</sup> Datiboko pertsona-indizea errepikatua da.

- *hasi*. *Izan* (ABS+INST). Urdiñarbe, 1990: 169.
- *jerraiki* (sic) “segitu” (ABS+DAT). Larraine, 1991: 174.

#### 4.2.3. 2002, XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa

Hori noski idatzizko corpus bat da (ikus beherago bibliografian testuen zerrenda). Ohar gaitezen 1936ko testu batez hasten dela eta beraz ez gaudela beti egiazko sinkronian.

- *ahatze* “ahantzi”. \**Edün* (ERG+ABS): Etxahun Iruri (1974, 1977).
- *baliatü* “erabili”. \**Edün* (ERG+ABS): Etxahun Iruri (1974).
- *behatü* “entzun”. *Izan* (ABS+DAT): A. Hillau (1936), Eppherre (1981).
- *egari* “erabili”. \**Edün* (ERG+ABS): Davant (1996).
- *goitü* “garaitu”. \**Edün* (ERG+ABS): Casenave (1981).
- *iseatü* “saiatu”. \**Edün* (ERG+ABS): Etxahun Iruri (1974). Berrikuntza

da absolutiboaren erabiltea adlatiboarena baino. Ohartzen gara Etxahun Iruri berritzailea dela bere euskararen erabilpenaren moldean.

- *jabetü* “beretu”. *Izan* (ABS+GEN): Casenave (1978). Bigarren kasua, genitiboa, berezia da, gehienetan instrumentala baita.

- *jarraiki* “segitu”. *Izan* (ABS+DAT): F. Hastoy (1938) *Paristarrer<sub>DAT</sub> jarraiki nahi gi<sub>ABS</sub>renian* «Paristarrak segitzen nahi ditugunean»; \**edün* (ERG+ABS): Casenave (1976).

- *kanbiatü* “aldu”. *Izan* (ABS+DAT+INST) eta \**ediün* (ERG+ABS+INST): Etxahun-Iruri (1974).

- *mintzo* (hizkuntza batez). *Izan* (ABS+INST): Aguegaray (1985).

- *ohartü*. \**Edün* (ERG+ABS): Etxahun Iruri (1974). *Zure karitatia<sub>ABS</sub> Jinkuk<sub>ERG</sub> ohart düke* «Zure karitateaz Jaungoikoa ohartuko da».

- *oritü* “oroitu”. \**Edün* (ERG+ABS): Etxahun Iruri (1974). *Jinkuk<sub>ERG</sub> orhit tüke ziek egin hunkiak<sub>ABS</sub>* «Jaungoikoa oroituko da zuek egin onkiez».

- *segitü*. \**Edün* (ERG+ABS): Etxahun Iruri (1977). Pierre Bordaçarre (Etxahun-Iruri) hemen ere berritzailea da zeren eta adineko zuberotarrek erabilten ez duten aditz bat enplegatzen baitu.

- *sinetsi*. \**Edün* (ERG+ABS): Heguiapal (1984).

- *üdüri* “irudi, norbera edo zerbaiten antza eduki”. *Izan* (ABS+ABS): *Gurre Herria* (1938).

#### 4.2.4. Bat-bateko berbaldiak

Goiago aipatu dudana bezala, grabatu ditudan oren laurden bateko baka-rrizketa bat (1990: A.C., mendiarra, 75 urte) eta oren bateko alkarrizketa bat (1990: A.C. + J.B.E., mendiarra, 77 urte) aztertu ditut. Interesatzen zaizkigun aditzen agerpenak guti dira.

- *baliatü*. *Izan* (ABS+DAT): *Baliatü zio<sub>DAT</sub>zü<sub>el. al. n</sub>* «Baliatu zitzaion (er. al.)». Ikusi dugu jadanik *ahatze* «ahantzi» era berean eraik daitekeela: *ahatze zait*. Ikus ere bai *oritü* beherago.

- *iseatü* “saiatu”. \**Edün* (ERG+ABS).

- *mintzatü* / *mintzo*. *Izan* (ABS+INST), aditzaren bi formekin.

- *orit* “oroitu”. *Izan* (ABS+INST) eta *izan* (ABS+DAT): *Bai arrunt oritzen zio<sub>DAT</sub>tzü gaiüzak<sub>ABS</sub>* «Bai bertan oroitzen zaizkio gauzak (er. al.)».

- *üdüritü* “iduritu”. \**Edün* (ERG+ABS).

## 4.2.5. Hiru libururi berri

Horiek dira: Jakes Sarrailleten *Basabürüan* itzulpena (1996), Junes Casenave-Harigilen *Basabürüko ipuinak* (1997) eta Jüje Etxebarne *Eguzki Amandrea* itzulpena (2004). Jakin behar da pastoral testuez bestalde zubererazko liburua gutxi direla.

- *ahatze* “ahantzi”. \**Edün* (ERG+ABS). Hiruek eraikuntza horrekin erabilten dute.

- *baliatü*. \**Edün* (ERG+ABS): Sarrailletek.

- *behatü* “entzun”. \**Edün* (ERG+ABS). Etxebarnen testuan, baina Sarrailletek gorabehera bat badu: *izan* (ABS+DAT), \**edün* (ERG+ABS) eta bai ere \**edün* (ERG+DAT).

- *borrokatü*. *Izan* (ABS+SOC): Sarraillet.

- *goitü* “garaitu”. \**Edün* (ERG+ABS): Sarraillet, Etxebarne.

- *hasi* “zerbaiten lehen zatia egin”. *Izan* (ABS+INST), *izan* (ABS+SOC): Etxebarne. *Izan* (ABS+kasu lokatibo bat), \**edün* (ERG+ABS): Sarraillet.

- *iseatü* “saiatu”. \**Edün* (ERG+ABS / ADL / TERM): Sarraillet, Etxebarne. Ikusi genuen testu zaherretan *izan* (ABS+ADL) eraikuntza nagusitzen zela. Etxahun-Irurik ere \**edün* (ERG+ABS) erabili du (1974). \**Edün*-ekiko erabilera hedatzen dela susma dezakegu.

- *jarraiki* “segitu”. Gorabahera bat badugu. *Izan* (ABS+DAT) edo \**edün* (ERG+ABS): Sarraillet, Casenave-Harigile. Gainera, Sarrailletek *izan* (ABS+IN) agerpen bat ere badu.

- *min üken*. \**Edün* (ERG+ABS): Casenave-Harigile. Agerpen bat baizik ez da eta beraz konparaketa elementurik ez dugu.

- *mintzo* “mintzatu”. *Izan* (ABS+INST): Sarraillet, Etxebarne. Hemen berrikuntzarik ez da.

- *ohartü*. *Izan* (ABS+DAT). Agerpen bat baizik ez dugu, Sarrailleten testuan, baina datibo kasuarekin eta ez instrumentalarekin. *Haren begitarte eijer eta gisako, egiaz gizenak hein bat loditüari<sub>DAT</sub> ohartü n<sub>ABS</sub>intzeio<sub>DAT</sub>n* «Haren aurpegi polit eta gisako, egiaz gizenak hainbat lodituaz ohartu nintzan» (1996: 124). Estimulua (*begitarte*) datiboarekiko izenaren erreferentia da eta esperientzia egilea absolutuarekikoarena. Eraikuntza honetan eginkizun semantikoak ez dira alderantzikatuak *ahazten zitazüüt* adibidean bezala (4.2.1.)<sup>17</sup>.

- *oritü* “oroitu”. *Izan* (ABS+INST): Sarraillet, Casenave-Harigile, Etxebarne. Hala ere, Sarrailletek *izan* (ABS+ABS) badu: *ontsa orbit n<sub>ABS</sub>iz pensatü nüan gaiüza<sub>ABS</sub>* (1996: 9). Huts edo hapax bat ote da?

- *so egin / so izan* “begiratu”. Diakronian bezala eraikuntza desberdin bazu badira. *Izan* (ABS+DAT) eta \**edün egin* (ERG+DAT): Sarraillet, Casenave-Harigile, Etxebarne. Beraz denek gorabehara hori badute. Bestalde, Casenavek \**edün* (ERG+TERM)-rekiko eraikuntza ere erabilten du: *Arroilarat<sub>TERM</sub> sogin züan* «arroilaraino bigeratzen zuen» (1997: 46). \**Edün* (ERG+DAT)-rekiko eraikuntzaren aldakuntza dela erranen dugu, *arroilari<sub>DAT</sub> sogin züan* posible litzatekeelarik, eta beraz *arroila* zirkunstante bat ez dela adibide horretan.

<sup>17</sup> Hala ere, Jüje Etxebarnen ez argitaratua den *Zubereraren gramatika*-n adibide hori aurkitu dut: *Aitaren errana ohartzan zait* (53. orr.). Baina kasu horretan *ohartü* aditzak *oritü*-ren adiera badu.

- *trüfatü*. *Izan* (ABS+INST): Sarraillet, Etxebarne. Etxebarnek \**edün* (ERG+ABS)-rekiko eraikuntza berritzailea erabilten du ere: *gaixtoki trüfatü züan* «gaixtoki trufatu zuen» (2004: 103).

- *üdüri* “norberaren edo zerbaiten antza eduki”. *Izan* (ABS+ABS): Etxebarne (agerpen bat bakarrik). \**Edün* (ERG+ABS): Casenave-Harigile (bi agerpen), Etxebarne (bost agerpen).

#### 4.2.6. *Hamar pastoral*

Jakina da pastoralen idazkera mota berezia dela: horren berezitasunetan aditz laguntzailerik gabeko neurtitzak, izen-determinatzaailerik gabekoak, hitzen ordena libroagoa baditugu. Beraz bilatzen nituen aditz-eraikuntzak guti aurkitu ditut. Egin berri diren hamar pastoral aztertu ditut:

- 1978, *Ibañeta pastoral*, Junes Casenave-Harigile.
- 1979, *Iparragirre pastoral*, Pierre Etxahun Iruri.
- 1998, *Herriko semeak pastoral*, Patrick Quéheille.
- 2000, *Madalena de Jaureguiberry pastoral*, Pier Pol Berzaitz.
- 2001, *Etxahun Iruri pastoral*, Roger Idiart.
- 2001, *Xiberoko makia trajeria*, Jean-Louis Davant.
- 2002, *Ürrüti Jauregiko Peirot pastoral*, Niko Etxart.
- 2003, *Ramuntxo pastoral*, Pier Pol Berzaitz.
- 2004, *Antso Handia pastoral*, Jean-Louis Davant.
- 2005, *Bereterretx pastoral*, Pier Pol Berzaitz.

- *ahatze* “ahantzi”. \**Edün* (ERG+ABS): Etxahun Iruri, Davant.

- *behatiü* “entzun”. *Izan* (ABS+DAT): Casenave-Harigile, Davant. \**Edün* (ERG+ABS): Etxahun Iruri, Berzaitz. Aditz honekin zalantza bat badugu. \**Edün*-ekiko eraikuntza berritzailea dela erran dezakegu, Archuk erabili badu ere (1848).

- *dolütü* “damutu”. *Izan* (ABS+DAT): Etxahun Iruri, Davant. \**Edün* (ERG+DAT): Quéheille. Ohartu behar da bigarren izen-determinatzaileak datibo kasua duela beti, bere erreferenta esperientzia egilea da.

- *etsitü* “itxaropena galdu”. Berzaitzek baizik ez du erabilten, gorabehera batekin: *izan* (ABS+DAT) / (ABS+INST).

- *goitü*. \**Edün* (ERG+ABS): Casenave-Harigile, Davant. Orainarteko emaitzak baieztatzen ditu.

- *hasi* “zerbaiten lehen zatia egin”. *Izan* (ABS+INST): Idiart, Davant. *Izan* (ABS+IN): Berzaitz, Quéheille. Idiartek \**edün* (ERG+ABS) eraikuntza badu ere, gorabehera bat da beraz.

- *ise(i)atü* “saiatu”. *Izan* (ABS+IN): Etxahun Iruri. *Izan* aditz laguntzailea erabilten du eta ez \**edün* 1974ean bezala, bainan aldi honetan inesiboarekin adlatiboaren orde. Erran behar da esaldi horretan *iseatü* aditza aditz-izen batekin erabilia ez dela, bainan izenorde erakusle batekin: *Bestelan mila gogotik hortan*<sub>IN</sub> *g<sub>ABS</sub>intake iseia* «horretan ginateteke saiatuko» (1979: 72).

- *jabetü* “beretu”. *Izan* (ABS+INST): Davant.

- *jarraiki* “suivre”. *Izan* (ABS+DAT): Casenave-Harigile. \**Edün* (ERG+ABS): Quéheille.

- *mintzatü* / *mintzo* (hizkuntza batez). *Izan* (ABS+INST): Berzaitz, aditzaren bi formekin.

- *ohartü*. *Izan* (ABS+INST): Berzaitz.

- *oritü* “oroitu”. *Izan* (ABS+INST): Etxahun Iruri, Berzaitz. Casenave-Harigilek *izan* (ABS+ABS) eraikuntza ezohizkoa erabili du: *Orhit*  $z_{ABS}$  *ira Paderbonan zurekin egin tratia*<sub>ABS</sub> «Oroit zara Paderbonan zurekin egin tratiaz» (1978: 85)<sup>18</sup>. \**Edün* (ERG+ABS): Quéheille. Azken hori berritzailea da.

- *sinetsi*. \**Edün* (ERG+IN): Berzaitz.

#### 4.2.7. *Bi inkesta idatziak*

Hirugarren atalean aurkeztu dut pixka bat inkesta idatziak nola eta norekin kudeatu ditudan. Emaitzak oro aurkeztea luzeegi litzateke (ikus galderen zerrendak eranskinen). Hala ere hona aditz batzuri buruzko oharpen zenbait, xehetasunetan sartu gabe. Zuberoatik kanpo bizi direnen lehen inkestako erantzunak ez dira kontuan hartuak hemen.

Erantzunen emaitzak zuhurtziaz kontuan hartzeko dira, testu librotako ahozko agerpenak ez baitira. *Lekukoen irudikapenak* biltzen ditugu nagusiki eta ez haien hizkuntza erabilera. Gainera ezagutua den bezala itzulpenetan sorburu-hizkuntzak eragin handia du, kasu honetan frantsesak beraz.

Zenbait aldiz lekukoak bi erantzun ematen ditu. Hori argumentu bat da, ez bada froga, errateko ematen dituen bi eraikuntzekiko esaldiak sinonimoak direla.

##### 4.2.7.1. Frantses esaldi euskaratuak

- “*oublier*” *ahatze* “ahantzi” (1. inkesta). \**Edün* (ERG+ABS): 58 erantzun (16/17 haur, 11/11 gazte, 13/17 heldu, 16/16 adineko). Alderantziz, *izan* (ABS+DAT): 2 erantzun (bi heldu).

- “*écouter*” *behatü* “entzun” (2. inkesta). \**Edün* (ERG+ABS): 25 erantzun, *izan* (ABS+DAT)-ekiko eraikuntzarik ez; *erantzün*: \**edün* (ERG+ABS) (7 haur, adineko bat).

- “*utiliser*” *baliatü* (1. inkesta). \**Edün* (ERG+ABS): 13 erantzun; *erabili* \**edün* (ERG+ABS): 24 erantzun; *egari* \**edün* (ERG+ABS): 15 erantzun. *Izan* aditz laguntzailearekiko bat ere ez.

- “*désespérer*” *etsitü* “itxaropena galdu” (2. inkesta). \**Edün* (ERG+ABS): 19 haur, 2 adineko; *izan* (ABS+INST): 2 heldu, 2 adineko.

- “*commencer*” *hasi* (1. inkesta). *Izan* (ABS+IN): 19 erantzun (5 gazte, 9 heldu, 5 adineko); \**edün* (ERG+ABS): 39 erantzun.

- “*gagner*” *irabazi* (2. inkesta). \**Edün* (ERG+ABS): 18 haur; \**edün* (ERG+DAT): 2 heldu, 4 adineko; \**edün* (ERG+kuntre): heldu bat.

- “*essayer*” *iseatü* “saiatu” (1. inkesta). *Izan* (ABS+ABS): 10 erantzun, *izan* (ABS+ADL): 9 erantzun; \**edün* (ERG+ABS): 23 erantzun, \**edün* (ERG+ADL): 6 erantzun.

- “*s’emparer*” *jabetü* “jabe bihurtu” (2. inkesta). *Izan* (ABS+INST): 7 erantzun (4 haur, 2 heldu, adineko bat); *izan* (ABS+ADL): 4 haur; *izan* (ABS+DAT): 2 haur; \**edün* (ERG+ABS): 2 haur.

- “*suivre*” *jarraiki* (1. inkesta). \**Edün* (ERG+ABS): 36 erantzun; *segitü* \**edün* (ERG+ABS): 26 erantzun. Azken aditz hori adinekoek ez dute erabili erranez zuberotarra ez dela. *Izan* aditz laguntzailearekiko agerpenik ez da.

<sup>18</sup> Frantsesez ere hizkera arruntean bi eraikuntza posible dira: “Vous vous souvenez du traité... / vous vous souvenez le traité...”.

- “*changer de kanbiatü*” “aldatu” (2. inkesta). *Izan* (ABS+INST): 2 heldu, 4 adineko; \**ediün* (ERG+ABS): 6 haur, heldu bat, 4 adineko; \**ediün* (ERG+INST): 13 haur, heldu bat.

- “*parler basque*” *mintzatü* (1. inkesta). *Izan* (ABS+INST): 23 erantzun; \**ediün* (ERG+ABS): 22 erantzun. Erantzunak orekatuak dira eta bai ere adinaren arabera. Adibidez, 3 adinekok eta 5 helduk \**ediün*-ekiko eraikuntza emaiten dute. Beste bi era baditugu ere, *eüskara eman* 8 erantzunekin eta *eüs-karaz ari*.

- “*remarquer*” *ohartü* (1. inkesta). *Izan* (ABS+INST): 30 erantzun; \**ediün* (ERG+ABS): 5 erantzun (heldu batek eta 4 adinekok; gaztek edo hurrek bezar ez). Hemen, lehenbizian, beste euskalkien eragina susma dezakegu, jakinez beste aditz batzu ere agertzen direla (*ikusi, erremarki, aperzebitu*).

- “*se souvenir*” *oritü* “oroitu” (1. inkesta). *Izan* (ABS+INST): 46 erantzun; \**ediün* (ERG+ABS): 6 erantzun, azken horiek 2 helduk eta 4 adinekok emanak. Ondorioz, erranen dugu aditz horrekin bilakaerarik ez dela; emaitza horien arabera, *izan* (ABS+INST) eraikuntza kasik bakarra da. Eskolaren eragina asma dezakegu.

- “*se servir de*” *zerbütxatü* “zerbait edo norbait baliagarri gertatu” (1. inkesta). *Izan* (ABS+INST): 10 erantzun (2 haur, gazte bat, 2 heldu, 5 adineko); \**ediün* (ERG+ABS): 12 erantzun (2 haur, 2 gazte, 3 heldu, 5 adineko). Ez da erraten ahal eraikuntza bat bestea baino hautuzkoagoa dela.

#### 4.2.7.2. Sailkatzeko esaldiak

Lehen inkestaren bigarren zatian, 25 aditzekiko eraikuntza ezberdin batzu proposatu nizkien lekukoei eta esaldi horiek sailkatu behar zituzten, *ez, bai* eta *hobe* markatuz. Esaldi egokien artean ezegoki batzu ere kokatu nituen be-riariaz, aditz bakoitza bospasei eraikuntza ezberdin erabiliz (ikus eranskina).

- *ahatze* “ahantzi”. \**Ediün* (ERG+ABS): ezezko bat; *izan* (ABS+DAT): 6 ezezko (2 gazte, 4 heldu). Horiek dira bi eraikuntza hautuzkoenak eta ez du- gu erraten ahal bata besteari nagusitzen zaiola.

- *baliatü*. \**Ediün* (ERG+ABS): 2 ezezko (2 haur). Alderantziz, *izan* (ABS+INST): 15 ezezko (bat ere ez adinekoetan, 2 bakarrik helduetan). Aditz honekin bilakaera bat susma dezakegu, *izan*-ekiko eraikuntza gero eta gehiago galtzen dela.

- *behatü* “entzun”. \**Ediün* (ERG+ABS): 2 ezezko (2 haur). Alderantziz, *izan* (ABS+DAT)-rekiko *aitari behatzen niz* eta *aitari behatzen nitzaio*: 10 ezezko haurretan eta 13 gazteetan (bat ere ez adineko eta helduetan). Aditz honekin ere ber bilakaera susma dezakegu, *izan*-ekiko eraikuntza galtzen dela.

- *borrokatü*. *Izan* (ABS+SOC): ezezkorik ez. \**Ediün* (ERG+ABS): 25 baiez-ko bainan 27 ezezko (8 haur, 8 gazte, 10 heldu eta adineko bat). Bigarren eraikuntza horrekin ez da erraza aldaketa norabidea asmatzea, bat baldin bada. *Izan* (ABS+SOC)-rekikoa litzateke eraikuntza usaiakoa.

- *hasi* “zerbaiten lehen zatia egin”. \**Ediün* (ERG+ABS)-rekiko *eskola<sub>ABS</sub> Maulen hasi diüt<sub>ERG</sub>*: 51 baiezko, 6 ezezko (4 heldu, 2 adineko). *Izan* (ABS+IN)-rekiko *eskolan<sub>IN</sub> Maulen hasi n<sub>ABS</sub>iz*: 41 baiezko, 15 ezezko (11 haur, 4 gazte, bainan heldu eta adinekorik ez). Hemen ere bilakaera susma dezakegu.

- *jarraiki* “segitu”. *Izan* (ABS+DAT)-rekiko *txakür<sub>ABS</sub> nausiari<sub>DAT</sub> jarraikitzen zai*: 13 ezezko (9 haur, 4 gazte, bainan heldu eta adinekorik ez).

\**Edün* (ERG+ABS), *txakiñrak*<sub>ERG</sub> *nausia*<sub>ABS</sub> *jarraikitzen dü*: 4 ezezko (haur bat, 2 gazte, adineko bat). Hemen erranen dugu zalantza bat badugula; baina iduri du *izan*-ekiko eraikuntza galduko edo bederen ahulduko dela.

- *mintzatü*. \**Edün* (ERG+ABS)-rekiko *aitak*<sub>ERG</sub> *euskara*<sub>ABS</sub> *mintzatzen dü*: 20 ezezko (6 haur, 10 gazte, 2 heldu, 2 adineko). *Izan* (ABS+INST)-rekiko *aita*<sub>ABS</sub> *euskaraz*<sub>ABS</sub> *mintzatzen da*: 3 ezezko (2 haur, gazte bat, alderantziz heldu eta adinekorik ez). *Izan*-ekiko eraikuntza nagusia da eta \**edün*-ekiko aski baztertua da. Halerik ere azken hau gazteek erabilia izan da esaldi euskaratuetan (4.2.7.1.). \**Edün* (ERG+INST)-rekiko *aitak*<sub>ERG</sub> *euskaraz*<sub>INST</sub> *mintzatzen dü* baztertua da, nehorik ez du onartzen.

- *ohartü*. \**Edün* (ERG+ABS)-rekiko *haur hori*<sub>ABS</sub> *ohartü n*<sub>ERG</sub> *üan*: 17 baiezko, 37 ezezko (13 haur, 9 gazte, 7 heldu, 8 adineko). *Izan* (ABS+INST)-rekiko *haur horrez*<sub>INST</sub> *ohartü n*<sub>ABS</sub> *intzan*: 46 baiezko, 12 ezezko (4 haur, 7 gazte, 1 heldu, adinekorik ez). \**Edün*-ekiko eraikuntza ez da nagusitzen.

- *oritü* “oroitu”. *Izan* (ABS+INST)-rekiko *Pette*<sub>ABS</sub> *gerlaz*<sub>INST</sub> *orit da*: 54 baiezko, 1 ezezko (gazte bat). \**Edün* (ERG+ABS), *Pettek*<sub>ERG</sub> *gerla*<sub>ABS</sub> *orit dü*: 28 baiezko, 27 ezezko (15 haur, 9 gazte, 2 heldu, 1 adineko). \**Edün*-ekiko eraikuntza ez da nagusitzen eta azpimarretzeko da gazteenak direla onartzen ez dutenak. Berriz ohartzen gara hori ez doala susmatzen dugun norabide orokorrera. Hemen eskolaren eta euskara batuaren eragina susma dezakegu *ohartü* aditzarekin bezala.

#### 4.2.7.3. Esaldi egitea euskal aditz batekin

Bigarren inkestaren bigarren zatian euskal aditza emana zen amaierazko aspektuan. Esaldi bat libroki idatzi behar zuten. Emaitzak iruzkinik gabe ematen ditut aditz batzurenako.

- *baliatü*. \**Edün* (ERG+ABS): 20/20 haur, 4 heldu, 6 adineko; *izan* (ABS+INST): haurrik ez, heldu bat, 2 adineko.

- *behatü* “entzun”. \**Edün* (ERG+ABS): 18/18 haur, 2 heldu, 6 adineko. *Izan* (ABS+DAT): 3 heldu, adineko bat. \**Edün* (ERG+DAT): adineko bat.

- *damütü* “damutu”. \**Edün* (ERG+ABS): 13/19 haur, adineko bat; *izan* (ABS+INST): haurrik ez, 2 heldu, 2 adineko. *Izan* (ABS+DAT): haur bat, 3 heldu.

- *garaitü*. \**Edün* (ERG+ABS): 11/15 haur, heldu bat, 6/6 adineko. *Izan* (ABS+DAT): 2 heldu.

- *güdükatü*. \**Edün* (ERG+ABS): 4 haur, heldu edo adinekorik ez. *Izan* (ABS+DAT): 4 adineko. *Izan* (ABS+SOC): 8 haur, heldu bat.

- *jabetü*. \**Edün* (ERG+ABS): 3 haur, 2 heldu, adineko bat. *Izan* (ABS+INST): 10 haur, 3 heldu, 5 adineko.

- *nausitü* “nagusitu”. \**Edün* (ERG+ABS): 16 haur, heldu eta adinekorik ez. *Izan* (ABS+DAT): 4/4 heldu, 7/8 adineko. *Izan* (ABS+INST): 1 haur.

## 5. EMAITZEN AZTERTZE OROKORRA - ALDAERA ETA BILAKAERAREN NORABIDEARI BURUZKO HIPOTESIA

Orain, emaitza horiek oro bildu behar ditugu ikuspegi orokor bat lortzeko. Testu zahar eta oraiko ahozko eta idatzizko testuko aditz eraikuntza ezberdinei esker ikusi beharko genuke hobeki aldaera sinonimo eta erbilienak

zein diren eta ere bilakaera zein litzatekeen, aditzaren eraikuntzaren bilakaera baldin bada. Orain arte 32 «kasu adierazpen bikoitzekiko baliobiko aditz» aurkitu ditut. Gorago erran bezala, eginen ditudan datozen baieztapenak joeratzat hartzeko dira eta ez frogatuak balira bezala. Geroak erranen du aditz horiek nola bilakatuko diren.

- **abatze**. *Izan* (ABS+DAT) eta \**ediün* (ERG+ABS) dira aldaerak.

Lehena gibeltsen ari da, gazteek ez dute erabilten. Emankizun semantikoak azalduz, *izanekiko* esaldian ahanzten duena jasotzailatzat hartua litzatekeela erran genezake (DAT); \**ediünekikoan* esperientzia jasaiten duena egiletzat hartua litzateke (ERG).

- **baliatü**. *Izan* (ABS+INST), *izan* (ABS+DAT), \**ediün* (ERG+ABS).

*Izan* (ABS+INST) eraikuntza desagertzen ari da. Gazteek \**ediün* (ERG+ABS)-ekikoa erabilten baizik ez dute. *Abatze* aditzarekin bezala, adineko lekukoek *izan* (ABS+DAT) eraikuntza baliatzen dute, non baliatzen duena jasale edo jasotzailatzat hartua den eta ez egiletzat.

- **behatü** “entzun”. *Izan* (ABS+DAT), \**ediün* (ERG+ABS), \**ediün* (ERG+DAT).

Iduri luke *izan*-ekiko eraikuntza galtzen dela, adinekoek ezagutua izanik ere. Hala ere, testu idatzietan erabilia da oraino. Gazteek gero eta gehiago *entziün* erabilten dute, hori beste euskalkien eta batuaren eraginarengatik. \**Ediün* (ERG+DAT)-rekiko eraikuntza urria da.

- **borrokatü**. *Izan* (ABS+SOC), \**ediün* (ERG+ABS).

Aditz horren agerpen guti bildu dudala aitortu behar da. Aditz hori haurrek orozgainenetik erabilten dutela iduri du. \**Ediün*-ekiko argerpen bat baizik ez dut bildu. Ez da aski baieztatzeko zalantza bat dugula eta noski bilakaera izanen dela.

- **damütü** “damutu”. *Izan* (ABS+INST), *izan* (ABS+DAT), \**ediün* (ERG+ABS).

Adinekoek *dolütü* aditza nahiago dute. *Izanetik* \**ediünerako* bilakera susma genezake.

- **dolü izan / dolü üken / dolütü / dolü egin** “damutu”. *Izan* (ABS+INST), *izan* (ABS+DAT), \**ediün* (ERG+ABS), \**ediün* (ERG+DAT).

Eraikuntza dibertsitatea handia da. Adinekoetan \**ediün* (ERG+DAT)-rekikoa da eraikuntza hedatuena. Pastoraletan *izan* (ABS+DAT) hiru aldiz aurkitu dut. \**Ediün* (ERG+ABS) berritasun bat da; testu zaharretan ez dut aurkitu. Azken honetan *dolü* objektu atxikitua (*embedded object*) bilakatua da. Erran nahi du *dolü*-k izen izarea galdu duela. Era orokorrean iduri du gazteek lexema hori ez dutela ontsa ezagutzen edo bederen erabilten ez dakiteela.

- **elestatü** “hizketan jardun”. *Izan* (ABS+SOC), *izan* (ABS+DAT), \**ediün* (ERG+ABS).

*Izan* (ABS+SOC)-rekikoa da eraikuntza nagusia. *Izan* (ABS+DAT)-rekikoa urria da, bi argerpenekin: Belapeyre (1696) eta heldu baten itzulpena. \**Ediün* (ERG+ABS)-rekiko eraikuntza inkestako esaldi hautatzekoetan ez dut baizik aurkitu (3 haur eta 7 gazte). Egiazko aldaera bat badela ez dugu erranen, behar bada datorren aldaeraren seinalea dela.

- **etsitü** “itxaropena galdu”. *Izan* (ABS+DAT), *izan* (ABS+INST), \**ediün* (ERG+ABS).



Haurrek aditz hori ez dute ontsa ezagutzen. Heldu eta adineko batzuk *izan* (ABS+INST)-rekikoa erabilten dute, \**ediün* (ERG+ABS)-rekiko eraikuntza hedatuena delarik.

- *garaitü*. *Izan* (ABS+DAT), \**ediün* (ERG+ABS).

*Etsitü* bezala aditz hori guti erabilia da, *goitü* edo *nausitü* hautuzkoak di-relarik. Testu zaharretan \**ediün* (ERG+ABS)-rekiko eraikuntza ez da baizik aurkitzen; *izan* (ABS+DAT)-rekikoa *nausitü* aditzarekiko kalkoa izan behar litzateke.

- *goitü* “garaitu”. *Izan* (ABS+DAT), \**ediün* (ERG+ABS).

\**Ediün* (ERG+ABS)-rekikoa da ohiko eraikuntza, testu mota oroetan. *Izan* (ABS+DAT)-ekiko agerpen bat bakarrekin, esaldi euskaratu baten, guti da zalantza bat dugoa baieztatzeko.

- *gozatü*. *Izan* (ABS+INST), \**ediün* (ERG+ABS).

Egiategik (1785) eta Archuk (1848) gorabehera badute. Bigarren inkestan heldu batek eta adineko batek *izan* (ABS+INST)-rekiko agerpena badute. Aldaketa kasik bururatua da.

- *güdiukatü* “gudukatu”. *Izan* (ABS+SOC), *izan* (ABS+DAT), \**ediün* (ERG+ABS).

\**Ediün* (ERG+ABS)-rekiko eraikuntza gazteen berrikuntza bat da. Iduri du helduek eta adinekoek aditz hori erabilten ez dutela.

- *hasi* “zerbaiten lehen zatia egin”. *Izan* (ABS+INST), *izan* (ABS+IN), \**ediün* (ERG+ABS).

Hemen aspaldiko zalantza bat badugu eta bai ere gorabehera bat batzurrentzat. Adineko lekukoen artean dira *izan* (ABS+IN)-ekiko eraikuntza nahiago dutenak, bainan, hala ere, emaitzak kontuan hartuz aldaketa bat dela ez da hain argi. Azpimarratu behar da beste euskalkietan *hasi izanekin* erabilten dela nagusiki.

- *hitzartü*. *Izan* (ABS+INST), \**ediün* (ERG+ABS).

Bigarren inkestan bi eraikuntzak adin multzoen arabera era berean banatuak dira; hala ere itzulpenean 16/17 haurrek \**ediün* (ERG+ABS)-rekiko eraikuntza hautatu dute.

- *hizkatü* “hitzez liskartu”. *Izan* (ABS+SOC), \**ediün* (ERG+ABS), \**ediün* (ERG+SOC).

Archu (1848): *izan* (ABS+SOC). Bigarren inkestan ber gauza: haur batek \**ediün* (ERG+SOC)-rekiko eraikuntza ematen du, 2 haurrek, heldu batek eta adineko batek \**ediün* (ERG+ABS)-rekikoa; besteek *izan* (ABS+SOC)-rekikoa (10 haur, heldu bat, 7 adineko). Bilakaeraren baieztatzea egokia ez litzateke, behar bada aldaeraren abiatzea.

- *hügü üken / hügüntü* “higuindu”. *Izan* (ABS+DAT), \**ediün* (ERG+ABS).

Testu zaharretan *izan* (ABS+DAT)-rekiko eraikuntza nagusitzen da. Sin-kronian, bigarren inkestan haur batek ere eraikuntza hori ez du erabilten, heldu batek eta adineko batek baizik ez. Erran genezake aldaketa kasik bukatua dela.

- *irabazi* (kirolan bereziki). \**Ediün* (ERG+kuntre), \**ediün* (ERG+etzean), \**ediün* (ERG+ABS), \**ediün* (ERG+DAT).

Lehen bi eraikuntzak frantsesaren kalkoak izan daitezke (*gagner contre*), lehena postpozio mailegatu batekin. Idatzizko inkestan gazteak dira \**ediün* (ERG+ABS)-ekikoa erabilten dutenak. Azkena alderantziz, \**ediün*

(ERG+DAT)-ekikoa, helduek eta adinekoek erabilia da, jakinez horietan ere \**ediün* (ERG+kuntre)-ekikoa erabiliena dela.

*Pelotakan Petteri*<sub>DAT</sub> *irabazi deio*<sub>DAT</sub><sup>t</sup><sub>ERG</sub> «Pilotan Petri irabazi dut» (A. C. lekukoa, 91 urte, 2005). Beraz, aditz horren kasuan bilakaera hori litzakete: \**ediün* (ERG+DAT) > \**ediün* (ERG+ABS). Ikus ere jarraian *so egin*-en bilakaera.

- *iseatü* “saiatu + aditz-izen”. *Izan* (ABS+ABS), *izan* (ABS+ADL), \**ediün* (ERG+ABS), \**ediün* (ERG+ADL).

Testu zaharretan *izan* (ABS+ADL)-rekikoa da eraikuntza gehiena, kasik bakarra da. Oraiko agerpenetan aditz horren eraikitzeak erak mota askotakoak dira: \**ediün* (ERG+ABS): Etxahun Iruri (1974), Etxebarne (2004); \**ediün* (ERG+ADL) eta \**ediün* (ERG+TERM): Sarraillet (1996). Eta ondorioz joeraren asmatzea ez da bat ere erraza, *izan* aditz laguntzailea guti erabilia dela erranenez bederen. Bainan belaunaldien artean ez da bereizgarri handirik agertzen.

- *jabetü*. *Izan* (ABS+INST), *izan* (ABS+GEN), \**ediün* (ERG+ABS).

Davant: *izan* (ABS+INST); Casenave-Harigile (1978): *izan* (ABS+GEN) adibide honetan: *Uskal-Herriaren*<sub>GEN</sub> *arrunt zen jabetü*.

Bigarren inkestan *izan* (ABS+INST)-rekiko eraikuntzak gehiengoa du haurretan ere. \**Ediün* (ERG+ABS)-rekikoetan 3 haur, 2 heldu eta adineko bat baizik ez dira. Aldaera badugula bainan aldaketarik ez erranen dugu.

- *jarraiki* “segitu”. *Izan* (ABS+DAT), \**ediün* (ERG+ABS).

*Izan* laguntzaileak bere garrantzia galtzen du, gutiago idatzizko testuetan. Gazteen artean *segitü* lexemak *jarraiki*-ren lekua hartzen du eta hori beti \**ediün* (ERG+ABS)-rekiko eraikuntzarekin.

- *kalakatü*. \**Ediün* (ERG+ABS) / *kalakan ari*: *izan* (ABS+SOC).

Aditz hori guti erabilia da, adinekoetan bat ere. *Ari*-rekiko erabiltzeak *izan* aditz laguntzailea behartzen du. Ez dakit aldaerarik ere baden.

- *kanbiatü* “aldatu”. *Izan* (ABS+INST), \**ediün* (ERG+ABS), \**ediün* (ERG+INST).

Testu zaharretan \**ediün* (ERG+ABS)-rekiko eraikuntza erabilia da *izan* (ABS+INST)-rekikoarekin. Sinkronian, bigarren inkestan, berrikuntza bat agertzen haurretan, \**ediün* (ERG+INST)-rekikoa.

- *minez izan* / *min üken*. *Minez izan* (ABS+ABL), *minez izan* (ABS+L. GEN), \**ediün* (ERG+IN), \**ediün* (ERG+L. GEN).

Erranen dugu hitz elkarketa badugula *minez izan* eta *min üken* lokuzioetan, eta beraz ondoko adibideetan izen-determinatzailea *bürü* dela: *bürütik minetz izan*, *bürüko minetz izan*, *bürüko min üken*, *bürüan min üken*. \**Ediüne*-kiko eraikuntza *izanekikoa* baino erabiliagoa da eta, inkesta idatziaren arabera, gazteek *izanekikoa* ez dute erabilten.

- *mintzatü* / *mintzo* (hizkuntza batez). *Izan* (ABS+INST), \**ediün* (ERG+ABS).

Diakronian Egiategik (1785) \**ediün* (ERG+ABS)-rekiko forma behin baizik ez du erabili, beste idazleek beti *izanekikoa*, oraiko testuetan ere. Beraz \**ediün* (ERG+ABS)-ekikoa berrikuntza hori gazteek erabilten dute, bainan ere ikusi dugun bezala 3 adinekok eta 5 helduk baliatu dute beren itzulpean (4.2.7.1.). Azpimarratu behar da ere beste bi aterabide linguistiko agertzen direla, hizkuntza batez hitz egitearen nozioa adierazteko: *eüskaraz ari* / *eüskara eman*.

- *nausitü* “nagusitu”. *Izan* (ABS+DAT), \**ediün* (ERG+ABS).

Gazteen artean, idatzizko inkestan bederen, *ediün* (ERG+ABS)-ekikoa da eraikuntza nagusiena, bakarra ere itzulpenetan. Heldu eta adinekoekin alde-rantzia da. Zalantzarik gabe erran dezakegu bilakaera badela, *izanekiko* eraikuntza baztertua ez bada ere.

- *ohartü*. *Izan* (ABS+INST), *izan* (ABS+DAT), \**ediün* (ERG+ABS).

Aditz horrekin besteei konparatuz, aldaketaren joera alderantzizkoa da. Idatzizko inkestan gazteek eta bereziki ikastolako hurrek *izan* (ABS+INST)-ekiko eraikuntza erabilten dute, adinekoek baino gehiago. Erran behar da helduek eta adinekoek aditz hori guti erabili dutela, eta hola delarik \**ediün* dela aditz laguntzailea. *Ohartü* aditzaren kasuan euskara batuaren eta nafar-lapur-tarren eragina susma genezake. Bestalde, ohartu behar da «*remarquer*» frantses aditza itzultzeko *ohartü* aditzak erantzunen erdia baizik ez duela emaiten eta gainera aditz honek *oritü* “oroitu”-ren adiera duela ere zubereran.

- *oritü* “oroitu”. *Izan* (ABS+INST), *izan* (ABS+ABL), \**ediün* (ERG+ABS).

Diakronian *izan* (ABS+INST)-rekiko eraikuntza kasik bakarra da. \**Ediün* (ERG+ABS)-rekikoa, XIX. mendean agertua izanik ere (Topet-Etxahun), ez da nagusiten. Gazteen artean, *ohartü* aditzaren kasuan bezala, euskara batu eta nafar-lapur-tarren eragina susma dezakegu, euskararen forma horietan aditz laguntzailea *izan* baita gehienetan. Noizbehinka *ohartü* emana da «oroitu»-ren adieratzat.

- *sinetsi*. \**Ediün* (ERG+ABS), \**ediün* (ERG+IN), \**ediün* (ERG+DAT).

Azken hau Archuk erabili du: *Gillenek*<sub>ERG</sub> *hoier*<sub>DAT</sub> *zien sinhetsi* «Gillenek hoiei zuen sinetsi» (1848: 90), nere bigarren inkestako itzulpenetan 11 hurrek bezala. Frantses *croire à*-ren kalko bat litzatekela iduri luke. (ERG+IN)-rekiko eraikuntza heldu eta adineko batzuk erabili dute, haurrik ez (frantses *croire en*). Alderantziz (ERG+ABS)-rekikoa hurrek baizik ez da erabilia. Bainan bigarren ariketan, *sinetsi* aditza esaldi baten enplegatutako behar zutelarik, heldu eta adineko batzuk azken eraikuntza hori ere erabili dute.

- *so izan / soz izan / so egin*. *Izan* (ABS+DAT), *egin* \**ediün* (ERG+DAT), *egin* \**ediün* (ERG+kasu lokatibo), *egin* \**ediün* (ERG+ABS).

Diakronian eraikuntza desberdintasuna handia da. Sinkronian, nere lehen inkestako lekukoari buruzko *So egiten düzüa Euskal Telebistari*<sub>DAT</sub>? galderari bi gaztek erantzun diote: *ez düü*<sub>ERG</sub> *soegiten Euskal Telebista*<sub>ABS</sub> eta *Pelota*<sub>ABS</sub> *so egiten düü*<sub>ERG</sub>. Aldaketaren lehen seinaleak ez dira zeren eta Archuk jadanik *egin* \**ediün* (ERG+ABS) erabili zuen: *Igaraiten den gizon hori*<sub>ABS</sub> *so egik* (1848: 162), frantses bezala «*Regarde cet homme*». Eraikuntza horretan *so* izena osoki elkartua da *so egin* aditz-lokuzioan. Iduri luke gazteek *soz izan* (ABS+DAT)-rekiko eraikuntza ez dutela ezagutzen. *Egin* \**ediün* (ERG+kasu lokatibo)-rekiko eraikuntzaz kasu lokatiboarekiko izen-determinatzailea zirkunstante bat dela pentsa genezake. Adib. *sogizu hunat*<sub>TERM</sub> (Constantin: 72). Eztabaida horretan ez gara sartuko. Tartasen ondoko adibidean, *egizü so bat* (1666: 37), argi da *so egin* aditz-lokuziorik ez dugula eta *so* lexema izen-determinatzailea dela.

Susma genezakeen aldaketa hori litzateke: *so egin* \**ediün* (ERG+ABS)-ra-koa. Bainan egiazko frogarik ez dugu.

- *trüfatü*. *Izan* (ABS+INST), *izan* (ABS+DAT), \**ediün* (ERG+ABS).

Diakronian eraikuntza bat baizik ez da, *Izan* (ABS+INST)-rekikoa. Etxebarnen \**ediün* (ERG+ABS)-rekiko eraikuntza, *gaixtoki trüfatu züan*, berrita-

sun bat da (2004: 103). Hapax bat edo geroko aldaketaren lehen lehen seinalea?<sup>19</sup>.

- *üdüri* “iruditu, norbait edo zerbaiten itxura izan”. *Izan* (ABS+ABS), \**ediün* (ERG+ABS), \**ediün* (ERG+DAT).

*Üdüri izan* (ABS+ABS) lokuzioaren bidez baliokidetasun erlazio bat finkatzen da, egoera-aditz batekin bezala. \**Ediün* (ERG+ABS)-rekiko eraikuntzan ere *üdüri* lexema aditzari lotua da. *Üdüri* izen bezala erabilten da ere: *zure botzak zaiaren balin badu iduria*<sub>ABS</sub> «Zure botzak gonaren irudia baldin badu» (Archu, 1848: 33). \**Ediün* (ERG+DAT)-rekiko berrikuntza haurretan agertzen da nere bigarren inkestan.

- *zerbütxatü* “baliatu, zerbait edo norbait baliagarri gertatu”: *Izan* (ABS+INST), \**ediün* (ERG+ABS).

Gorago erran dugu ez dela baieztatzen ahal mailegu horren eraikuntza bat bestea baino hautuzkoagoa zela, inkesta baliatuz, baina bai ere testu zaharrak aztertuz. Egiategik: *beren bizitziak*<sub>ABS</sub> *hartara zerbütxatzen* *z*<sub>ERG</sub> *ütie-lakoz* «baliatzen zituztelakoz» (1785: 191); Archuk: *Hortako zerbütxatu* *n*<sub>ABS</sub> *izla (sic) fontainaren lanaz*<sub>INST</sub> (1848: 30); *Sarde hori*<sub>ABS</sub> *zerbütxatü diat* «sarde hori erabili dut<sub>ERG</sub> (al. hur.)» (1. inkesta, 19. itzulpena).

## 6. ORAIKO ONDORIOAK ETA IKERKETA HONEN LUZAMENDUAK

Lan hau hizkuntza bilakaera eta aldaketaren sailean kokatzen da; iragankortasun nozioaren, sintaxia eta semantikaren arteko harremanen sailak ere ukitzen ditu. Emaitzak aztertu ondoan, susmatzen nuen **aldaketaren norabide orokorra** argiago agertzen da.

Bi motako da (ikus (4 a) 1. zatian):

(4 b) *izan* (ABS+DAT/INST/SOZ) > \**ediün* (ERG+ABS) gehienetan, edo

(4 c) \**ediün* (ERG+DAT) > \**ediün* (ERG+ABS).

Bainan ateratu ditugun 32 aditz horiek ez dira ber motakoak. Beraz aditzak sailkatzeko dira banaka eraikuntzaren arabera, bi egituren aditz laguntzaile, pertsona-indize eta izen-determinatzaileen kasuak kontuan hartuz, test sintaxiko aplikatuz, aditzaren eremu kontzeptuala ateratuz<sup>20</sup>, aditzaren egituraren argumentoen emankizun semantikoak aztertuz eta sailkatuz.

Aditzen iragankortasun semantikoaren maila zehaztatzeko da edo, hobe errana, haien prozesu eta argumentuak aztertu eta, eraikuntza iragankortasun-mailan kokatzeko da. Eskala bat badugu egilearentzat: egile / agente (bizidun nahizko), autore (bizidun ez nahizko), kausa, tresna eta indar (bizigabe nahigabeakoak), gauza bera jasalearekin: jasale (hunkitua edo egina), tema (ez hunkitua bere izatean, bere espazial, denborazko, nozio-egoeran), gunea (bizigabe hunkitua), etab. Ikerketa honetan sartu gabe erran dezakegu aditz horien eraikuntzak apalak direla iragankortasun eskalan. Bainan hori da zehaztu behar dudana datorren ikerketan aditzak banan-banan aztertuz. Eremu

<sup>19</sup> De Rijkek eraikuntza hori idazle zenbaiten testuetan aurkitu du (2002: 303); bainan zuberorak ez dira.

<sup>20</sup> Azken lan hori, aditzen sailkatzea alor kontzeptualen arabera, hasi dut (2005, Les verbes bivalents à double marquage casuel et indiciel en basque: un aspect de la dynamique de la transitivité): oharren eta sentipen aditzak, ahozko komunikazio aditzak, norgehiagoka eta borroka aditzak, moduzko aditzak...

kontzeptuala kontuan hartuz aditzak bilduko ditugu, adibidez *goitü, garaitü, irabazi* edo *nausitü* norgehiagoka eta borroka aditzetan. Susma dezakegu joera bera jarraitzen dutela, prozesua amaitzen baita. Eta egia da hoiekin *ediin* (ERG+ABS)-rekiko eraikuntza hedatzen dela.

Datorren lan horri esker, egileak oraiko zubereran leku gehiago hartzen duelako hipotesia argitu izan behar daiteke, ez bada egiaztatu, aditz horiei esker berderen. Bestelan erranen dugu hizkuntzen kontaktua eragileetarik bat dela ere, frantsesaren eta beste euskararen formek eragina dutelakotz bereziki zuberotar gazteen artean eskolaren bidez, edo sinpleki erakutsi dugun aldaketa barneko ekonomia linguistikolari lotua dela, hizkuntza sisteman sinkronian bi aditz-eraikuntzak elkarrekin bizi direlakotz eta hori, ikusi dugun bezala, aspaldidanik.

Lan hori beste euskalkietan ere kudeatzeko litzateke, zubereran asmatzen ditugun hizkuntzaren norabideak berak direnez aztertzeke eta egiaztatzeke.

## ERANSKINA: INKESTA IDATZIAK

### 1. inkesta

IZENA:	ESPOSA:
IZEN TTPIA:	
ADINA:	OFIZIOA:
SORTERRIA:	
BIZI HERRIA:	

Zure ama nonko da? – Üskaraz mintzatzen dea?:

Zure aita nonko da? – Üskaraz mintzatzen dea?:

Noiz ikasi düzü üskara?

Noiz ikasi düzü frantsesa?

Eüskaraz mintzatzen zira etxen?

Euskara batua ezagützen düzüa?

«Manexa» entelegatzen düzüa?

So egiten düzüa Euskal Telebistari?

Oraiko üskara badakizüa irakurtzen?

Üskara badakizüa izkiribatzen?

### Ützültzeak (ortografiak ez dü inporta)

1. «Je me rappelle de cette histoire»:
2. «Papa a oublié cette histoire»:
3. «Maman se souvient de cette histoire»:
4. «L'âne suit le chemin»:
5. «Je parle basque»:
6. «Je parle basque à mon fils»
7. «La voisine bavarde avec mon fils»:
8. «Cet homme se moque de moi»:
9. «Mauléon a gagné contre Oloron»:
10. «Mauléon a battu Oloron»:
11. «Ce garçon s'est battu avec un voisin»:
12. «Pierre regrette le Pays Basque»:
13. «Il essaie de parler»:
14. «Pierre a essayé de manger»:

15. «Pierre a commencé à manger»:
16. «Pierre commence son travail»:
17. «Marie bavarde avec sa grand-mère»:
18. «J'ai utilisé cette fourche»:
19. «Je me suis servi de cette fourche»:
20. «Il a commencé l'école à six ans»:
21. «Elle avait mal de tête»:
22. «J'ai remarqué ce trou»:
23. «J'écoute souvent Xiberoko Botza»:

**Haüta ezazü erranaldi hoberena - Bakotxari ezar: bai – ez – hobe(rena).**

1. ——— *Aitak eüskara mintzatzten dü*  
 ——— *Aita eüskaraz mintzatzten da*  
 ——— *Aitak eüskara emaiten dü*  
 ——— *Aitak eüskaraz mintzatzten dü*
2. ——— *Pettek gerla orit dü*  
 ——— *Pettek gerla oritzen dü*  
 ——— *Pette gerlaz orit da*
3. ——— *Txakürra nausiari jarraikitzen zaio*  
 ——— *Txakürrak nausiari jarraikitzen deio*  
 ——— *Txakürra nausiari jarraikitzen da*  
 ——— *Txakürrak nausia jarraikitzen dü*
4. ——— *Maddi Petteri üsü elestatzen da*  
 ——— *Maddik Pettek in üsü elestatzen dü*  
 ——— *Maddi Pettek in üsü elestatzen da*  
 ——— *Maddik Pette üsü elestatzen dü*  
 ——— *Maddik Petteri üsü elestatzen dü*
5. ——— *Aita behatzen dü*  
 ——— *Aitari behatzen niz*  
 ——— *Aitari behatzen nitzazio*  
 ——— *Aitari behatzen dü*
6. ——— *Eki eder hori baliatü dizügü belarraren idorrarazteko*  
 ——— *Eki eder hortzaz baliatü gütüzü belarraren idorrarazteko*  
 ——— *Eki eder hortzaz baliatü dizügü belarraren idorrarazteko*
7. ——— *Maule Paueri nausitü da*  
 ——— *Maulek Paue nausitü dü*  
 ——— *Maule Paueri nausitü zaio*  
 ——— *Maulek Paueri nausitü dü*
8. ——— *Berri haboro izanen düütüzü*  
 ——— *Berri haboro ükenen düütüzü*  
 ——— *Berri haboro ükenen düüzü*  
 ——— *Berri haboro izanen düüzü*
9. ——— *Eskola Maulen hasi dü*  
 ——— *Eskolan Maulen hasi niz*  
 ——— *Eskolan Maulen hasirik niz*

10. ————— *Bürüko min düit*  
 ————— *Bürüko minez niz*  
 ————— *Bürüan min düit*  
 ————— *Bürütik minez niz*  
 ————— *Bürütik min düit*
11. ————— *Hasten da jaten*  
 ————— *Hasten dü jaten*  
 ————— *Hasten da jatea (jatia)*  
 ————— *Hasten da jatera (jatea)*  
 ————— *Hasten da jateari (jatiari)*  
 ————— *Hasten dü jatea (jatia)*
12. ————— *Ihizlaria bideari segitzen zaio*  
 ————— *Ihizlaria bideari segitzen da*  
 ————— *Ihizlariak bidea segitzen dü*  
 ————— *Ihizlariak bideari segitzen dü*
13. ————— *Ebia ari da*  
 ————— *Ebia ari dü*  
 ————— *Ebia egiten dü*  
 ————— *Ebia egiten ari da*  
 ————— *Ebi egiten dü*
14. ————— *Haur hori ohart nüan*  
 ————— *Haur horrez ohart nintzan*  
 ————— *Haur hortzaz ohart nintzan*  
 ————— *Haur horri ohart nintzan*
15. ————— *Nitzaz trüfatzen zira*  
 ————— *Ni trüfatzen düzü*  
 ————— *Nitzaz trüfatzen düzü (zük)*  
 ————— *Nitaz trüfatzen zira*
16. ————— *Teleari so egiten nük*  
 ————— *Telea so egiten diat*  
 ————— *Teleari so egiten diat*  
 ————— *Teleari so nük*  
 ————— *Teleari soz nük*
17. ————— *Dolü niz Xiberoaz*  
 ————— *Dolü egiten düit Xiberoari*  
 ————— *Dolü düit Xiberoari*  
 ————— *Dolü düit Xiberoaz*  
 ————— *Dolü niz Xiberoari*
18. ————— *Allande aüzoari elekatü da*  
 ————— *Allandek aüzoari elekatü dü*  
 ————— *Allande aüzoarekin elekatü da*  
 ————— *Allandek aüzoa elekatü dü*  
 ————— *Allandek aüzoarekin elekatü dü*
19. ————— *Sarde hori egari dük (egai)*  
 ————— *Sarde horrekin egari hiz*

- \_\_\_\_\_ Sarde horrez egari hiz  
 \_\_\_\_\_ Sarde horrez egari dük  
 \_\_\_\_\_ Sarde horrekin egari dük  
 20. \_\_\_\_\_ Potikoa bilhaskatü da bere osabarekin  
 \_\_\_\_\_ Potikoak bere osaba bilhaskatü dü  
 \_\_\_\_\_ Potikoak bere osabarekin bilhaskatü dü  
 \_\_\_\_\_ Potikoa bere osabari bilhaskatü da  
 21. \_\_\_\_\_ Tresna hori zerbütatüko dügü  
 \_\_\_\_\_ Tresna horrekin zerbütatüko gira  
 \_\_\_\_\_ Tresna hortaz zerbütatüko gira  
 \_\_\_\_\_ Tresna horrez zerbütatüko dügü  
 22. \_\_\_\_\_ Historia hori ahatze diat  
 \_\_\_\_\_ Historia horri ahatze nük  
 \_\_\_\_\_ Historia horrez ahatze nük  
 \_\_\_\_\_ Historia hori ahatze zitak  
 \_\_\_\_\_ Historia horrez ahatze diat  
 23. \_\_\_\_\_ Bere aitari bühürtü da  
 \_\_\_\_\_ Bere aita bühürtü dü  
 \_\_\_\_\_ Bere aitaz bühürtü da  
 \_\_\_\_\_ Bere aitarekin bühürtü da  
 \_\_\_\_\_ Bere aitari bühürtü zaio  
 24. \_\_\_\_\_ Hitzartü gira jitera (jitea)  
 \_\_\_\_\_ Hitzartü gira jitea (jitia)  
 \_\_\_\_\_ Hitzartü dügü jitea (jitia)  
 \_\_\_\_\_ Hitzartü dügü jitera (jitea)  
 25. \_\_\_\_\_ Johañek Pette borrokatü dü  
 \_\_\_\_\_ Johañe Petteri borrokatü da  
 \_\_\_\_\_ Johañe Pettekin borrokatü da  
 \_\_\_\_\_ Johañek Pettekin borrokatü dü

## 2. inkesta

IZENA:

ESPOSA:

IZEN TTPIA:

ADINA:

OFIZIOA:

SORTERRIA:

BIZI HERRIA:

### Ützültzeak (ortografiak ez dü inporta)

1. «Hier Pierre a écouté la radio»:
2. «Je désespère de le revoir un jour»:
3. «Cette odeur me dégoûte»:
4. «Marie regrette sa jeunesse»:
5. «Baptiste déteste le fromage»:
6. «Ils ont convenu du repas»:
7. «Oloron a dominé Mauléon»:
8. «Jean s'est rebellé contre son père»:
9. «Mon frère croit en ce nouveau maire»:



10. «Son fils désespère cet homme»:
11. «Les voisins se sont entendus sur l'heure du repas»:
12. «Ce chien ressemble à un loup»:
13. «Il regardait souvent la télévision»:
14. «Les anciens utilisaient tout ce qu'ils trouvaient»:
15. «La France a vaincu l'Allemagne»:
16. «Jean est devenu propriétaire de cette maison»:
17. «Le voisin s'est opposé au curé»:
18. «Pierre a discuté avec un étranger»:
19. «L'Allemagne s'était emparée du Nord de la France»:
20. «Je me suis disputé avec mon frère»:
21. «Mon oncle a combattu les Allemands»:
22. «Il a renoncé à cette maison»:
23. «Il a changé de voiture»:
24. «J'ai gagné Pierre à la pelote»:
25. «Les enfants ont savouré ce gâteau»:

#### Aditz (berba) horiekin erranaldi (frasa) bat egin ezazü

- *baliatü*
- *behatü*
- *damütü*
- *etsitü*
- *garaitü*
- *goitü*
- *gozatü*
- *greütü*
- *güdükatü*
- *hitzartü*
- *hizkatü*
- *hügüntü*
- *irabazi*
- *jabetü*
- *kanbiatü*
- *nausitü*
- *oldartü*
- *sinetsi*
- *so izan*
- *üdüritü*

#### BIBLIOGRAFIA

##### Lehengo zuberotar testu aztertuak

- ARCHU Jean-Baptiste, 1848 (1990), *La Fontainaren alegia berbeziak*, Ricardo Gómezek prestatua, Oiartzun, Euskal editoreen elkarteak.
- BELAPEYRE Athanase, 1696 (1983), *Catechima laburra eta Jesus-Christ goure ginco jaunaren eçagutcia, salvatu içateco*, edizio kritikoa, Jean-Louis Davantek paratua, Bilbo, Euskaltzaindia.
- CONSTANTIN Jean-Baptiste, 1910-1926 (1996), *Haritchabaletaren bizia-Don Juan eta bere adixkidiak*, Patri Urkizuren edizioa, Oiartzun, Euskal editoreen elkarteak.

- EGIATEGI Jusef, 1785 (1983), *Lehen liburria edo filosofo buskaldunaren ekheia*, Txomin Peillenek prestatua, Bilbo, Euskaltzaindia.
- TARTAS Jean de, 1666 (1975), *Ontsa hiltzeko bidea*, Andolin Eguzkitzaren edizioa, Arantzazu, Jakin.
- TOPET-ÉTCHAHUN Pierre, ?1805-1861 (1970), *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun*, Jean Haritschelhar, Bilbo, Euskaltzaindia.

### Oraiko zuberotar testu aztertuak (ahozko eta idatzizkoak)

- BERZAITZ Pier Pol, 2003, *Ramuntxo pastoralala*, Idauze-Mendi.
- , 2000, *Madalena de Jaureguiberry pastoralala*, Eskiula.
- , 2005, *Bereterrerex pastoralala*, Ligi-Aterei.
- CASENAVE-HARIGILE Junes, 1997, *Basabürüko ipuinak*, Baigorri, Izpegi.
- , 1978, *Ibañeta pastoralala*, Garindaine, Arantzazu, Jakin argitaletxea.
- DAVANT Jean-Louis, 2001, *Xiberoko makia trajeria*, Sohüta.
- , 2004, *Antso Handia pastoralala*, Maule.
- ETXAHUN IRURI Pierre, 1979, *Iparragirre pastoralala*, Urdiñarbe, 1999an.
- ETXART Niko, 2002, *Ürrüti Jauregiko Peirot pastoralala*, Altzürükü.
- ETXEBARNE Jüje, 2004, *Eguzki Amandrea*, Nine Goihenetxen testu euskaratua, Baiona, Maiatz.
- EUSKALTZAINDIA, 1999, Zubererazko grabaketak, *Euskal Herriko Hizkuntz Atlas: Obiko Euskal Mintzamoldeen Antologia*, (186 orr. + 5 CD-Rom), Bilbo, 166-186.
- / UZEI, 2002, *XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa*, www.euskaracorpusa.net/XX-mendea/index.html<sup>21</sup>.
- IDIART Roger, 2001, *Etxahun Iruri pastoralala*, Iruri.
- LEIZAOLA Fermin (zuzen.), 1983-1990, *Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoa* (EAEL), 2 liburuki, Donostia.
- QUÉHEILLE Patrick, 1998, *Herriko semeak pastoralala*, Barkoxe.
- SARRAILLET Jakes, 1996, *Basabürüan*, Jean de Jauréguiberryren testu euskaratua, Baiona, Maiatz.

### Bibliografia linguistikoa

- BOSSONG Georg, 1992, «Interaction entre fonctions actanciennes et sémantique des actants», *Programme in Language Typology*, European Science Foundation, Eurotyp Working papers, n° 4.
- , 1998, «Le marquage de l'expérience dans les langues d'Europe», in *Actance et Valence dans les Langues de l'Europe*, Jack Feuillet (ed.), Berlin – New-York, Mouton de Gruyter, pp. 259-294.

<sup>21</sup> AGUERGARAY A., 1985, *A. d'Oihenart. Phastuala. Muskildi*.

BORDAÇARRE P. (ETXAHUN IRURIKO), 1974, *Etxahun koblakari. Pastoralala*.

—, 1977, *Etxahun-Iruri khantan*.

CASENAVE J., 1976, *Santa Grazi. Pastoralala*.

—, 1981, *Pette Basabürü*. Toribio Alzaga saria. 1980. 2, 79-140.

—, 1978, *Ibañeta pastoralala. Zuberotarra*.

—, 1996, «Bortüzale», in: *Euskerazaintza*, 1996, 37 zk., 48-52.

DAVANT J. L., 1980, *Makila gorria*.

—, 1986, *Abadia Urrustoi. Pastoralala*.

—, 1996, «Athanas de Belapeyre, haren familia, bizitzea eta lana», in: *Euskera*, 1996, 1-2, 41 zk., 61-66.

EPPHERRE J.-M., 1981, «Hartzaren kantoria», in: *Euskera*, 1981, XXVI, 725.

EZEZAGUNA (Fabienne HASTOY), 1938, «Pariseko mudak eta provintzietako muda zaharrak [poesia]», in: *Gure Herria*, 1938, XVIII, 308-312.

HEGUIAPHAL M., 1984, *Santa Jenebieba. Pastoralala*

HILLAU A., 1936, «Bichy ala ahuchky?», in: *Gure Herria*, 1936, XVI, 17-30.

LIGUEIX L., 1957, «Hoki-ko eliza [poesia]», in: *Gure Herria*, 1957, XXIX, 184-185.

- , 2003, «Nominal and / or verbal marking of central actants», in *Romance objects. Transitivity in Romance languages*, Giuliana Fiorentini (ed.), Berlin – New-York, Mouton de Gruyter, pp. 17-47.
- CHAMBERS J. K., 2002 (2004), «Patterns of Variation including Change», *The Handbook of Language Variation and Change*, Chambers J. K., Trudgill Peter, Schilling-Estes Natalie (ed.), pp. 349-372.
- CHAMBERS J. K.; TRUDGILL Peter; SCHILLING-ESTES Natalie, (ed.), 2002 (2004): *The Handbook of Language Variation and Change*, Malden (USA)-Oxford (UK)-Carlton (Australia), Blackwell Publishing, 807 p.
- CLAIRIS Christos, 1991, «Identification et typologie des fluctuations», *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris*, LXXXVI, 1, Paris, Klincksieck, 19-35.
- COYOS Jean-Baptiste, 1999, *Le parler basque souletin des Arbailles – Une approche de l'ergativité*, Paris, L'Harmattan.
- , 2003, «Nommer, définir des faits linguistiques: deux exemples en basque», *Lapurdum*, VIII, Baiona, Iker Euskarari eta Euskal Testuei buruzko Ikerketa Gunea - UMR 5478, 123-138.
- , agertzeko, «Les verbes bivalents à double marquage casuel et indiciel en basque: un aspect de la dynamique de la transitivité», *Situations linguistiques complexes et contacts de langues*, XXIXe Colloque international de linguistique fonctionnelle, Helsinki (Finlandia), 2005/09/21-24.
- DESCLÈS Jean-Pierre, 1998, «Transitivité sémantique Transitivité syntaxique», in André Rousseau (éd.), *La transitivité*, Villeneuve d'Ascq, Presses Universitaires du Septentrion, 161-180.
- DOWTY David, 1991, «Thematic proto-roles and argument relations», *Language*, 67/3, Baltimore (USA), 547-619.
- HOPPER Paul J.; THOMPSON Sandra A., 1980, «Transitivity in Grammar and Discourse», *Language*, 56, 2, Baltimore, W. Bright, 251-299.
- HOUEBINE Anne-Marie, 1985, «Pour une linguistique synchronique dynamique», *La Linguistique*, 21, Paris, Presses Universitaires de France, 7-36.
- MARTIN Pierre, 1988, «Fluctuations et flottements vocaliques en franco-canadien», *Actes du XIVe Colloque International de Linguistique fonctionnelle*, Elseneur - Danemark, 29 juin - 4 juillet 1987, dans *Cahiers de l'Institut de Linguistique de Louvain*, 1988, 14, Louvain-la-Neuve (Belgique).
- MARTINET André, 1975 (1973), «Diachronie et synchronie dynamique», *Evolution des langues et reconstruction*, Paris, Presses Universitaires de France, 5-10.
- , 1975 (1959), «Contacts», *Evolution des langues et reconstruction*, Paris, Presses Universitaires de France, 24-38.
- , 1989 (1984), «De la synchronie dynamique à la diachronie», *Fonction et dynamique des langues*, Paris, Armand Colin, 47-52.
- , 1990, «La synchronie dynamique», *La Linguistique*, 26, 2, Paris, Presses Universitaires de France, 13-23.
- OYHARÇABAL Bernard (ed.), 2003, *Inquiries into lexicon-syntax relations in Basque*, Supplements of the *Anuario de Filologia Vasca «Julio de Urquijo»*, n° XLVI, Bilbo - Donostia.
- POTTIER Bernard, 1992, *Sémantique générale*, Paris, Presses Universitaires de France.
- RUIK (DE) Rudolph P. G., 2002, «L'antipassif basque et l'hypothèse de Levin», *Lapurdum*, VII, Baiona, Iker Euskarari eta Euskal Testuei buruzko Ikerketa Gunea - UMR 5478, 295-312.
- ROUSSEAU André (éd.), 1998, *La transitivité*, Villeneuve d'Ascq (France), Presses Universitaires du Septentrion.

## LABURPENEA

Artikulu hau zubereraren baliobiko aditz zenbaiten ikerketa baten lehen etapa da, «kasu adierazpen bikoitzekiko baliobiko aditzak» deitzen direnak. Gaurregun bi edo era ezberdin gehiagoz eraikitzen dira, ber adiera izanik. Hola da, adibidez, *behatü* «entzun», *mintzatü* edo *hasi* aditzekin. *Izan* aditz laguntzailearekiko eraikuntzak adineko hiztunek erabiliagoak dira, alderan-

tziz gazteek \**ediin* aditz laguntzailearekiko eraikuntzak nahiago dituzte. Aditzak banan-banan aztertuz, joera hori egiaztatzeko da, jakinez eraikuntza bikoitz horietarik zenbait testu zaharretan ere aurki daitezkeela eta batzutan beridazlearen testuetan.

Lehen begi-ukaldian, aditz horiek oro apalak dira iragankortasun eskaleran, jasalearen hunkipenaren irizpidea kontuan hartuz adibidez. Argitaratua den bilakaera hori barneko hizkuntza ekonomiaren eraginaren ondorioa izan daiteke, sinkronian bi aditz-eraikuntzak elkarrekin bizi direlakotz hizkuntza sisteman, edo eragilea bi hizkuntzen kontaktua izan daiteke, zuberotar hiztun denak euskara-frantses elebidunak baitira edo, eta hori da hipotesia ausartena, hizkuntzaz kanpoko zergatiak izan daitezke, bizimodu eta pentsamoldearen bilakaera bezalakoak non egilearen eginkizuna ez aktibo eta kontrolik gabeko aktantei hedatua den, eta, zergatik ez, irizpide horien elkarketa.

## RESUMEN

Este artículo es la primera fase de un estudio consagrado a algunos verbos bivalentes en vasco souletino, llamados «verbos bivalentes a doble marcado casual». Se construyen actualmente de dos, o más de dos maneras diferentes, para un sentido idéntico. Es el caso, por ejemplo, de *behatü* «escuchar», *mintzatü* «hablar» o *hasi* «comenzar algo». Los oradores de los grupos de mayor edad utilizan, más bien, las construcciones con el auxiliar *izan* «ser», los más jóvenes utilizan, en cambio, las construcciones con el auxiliar \**ediin* «tener». Esto debe confirmarse verbo por verbo, sabiendo que dobles construcciones ya se encuentran para algunos verbos en textos antiguos y a veces en un mismo autor.

Al primer acceso, estos verbos son bastante bajos en la escala de transitividad, sobre la base por ejemplo del criterio de asignación del paciente. La evolución lograda podría deberse simplemente a una evolución vinculada a la economía interna a la lengua puesto que las dos estructuras en competencia ya coexisten, o debida al contacto de lenguas ya que los oradores son todos bilingües vasco-franceses o, es la hipótesis más audaz, debida a causas exteriores como la evolución del modo de vida y pensamiento en el cual el papel de agente se extiende a actantes poco activos, no controlando la acción, y, por qué no, a la conjunción de estos factores.

## RÉSUMÉ

Cet article est la première phase d'une étude consacrée à certains verbes bivalents en basque souletin, appelés «verbes bivalents à double marquage casuel». Ils se construisent à l'heure actuelle de deux, ou plus de deux façons différentes, pour un sens identique. C'est le cas, par exemple, de *behatü* «écouter», *mintzatü* «parler» ou *hasi* «commencer quelque chose». Les constructions avec l'auxiliaire *izan* «être» sont plutôt utilisées par les locuteurs des tranches d'âge supérieures, les plus jeunes utilisent plutôt les constructions avec l'auxiliaire \**ediin* «avoir». Ceci est à confirmer verbe par verbe, sachant que des doubles constructions se rencontrent pour certains verbes déjà dans des textes anciens et parfois chez un même auteur.

Au premier abord, ces verbes sont tous assez bas dans l'échelle de transitivité, sur la base par exemple du critère d'affectation du patient. L'évolution mise à jour pourrait être due simplement à une évolution liée à l'économie interne à la langue puisque les deux structures en concurrence coexistent déjà, ou due au contact des langues du fait même que les locuteurs sont tous bilingues basque-français, ou, c'est l'hypothèse la plus audacieuse, due à des causes extérieures comme l'évolution du mode de vie et de pensée dans lequel le rôle d'agent est étendu à des actants peu actifs, ne contrôlant pas l'action, et, pourquoi pas, à la conjonction de ces facteurs.

## ABSTRACT

This article is the first phase of a study devoted to certain bivalent verbs of Souletin Basque dialect, called «bivalent verbs with double casual marking». They are built at the present time of two or more different ways, for an identical sense. It is the case, for example, of *behatü* «to listen», *mintzatü* «to speak» or *hasi* «to begin something». Constructions with the auxiliary *izan* «to be» are used by the speakers of the older age brackets, while young people use constructions with the auxiliary \**ediün* «to have». This is to be confirmed verb by verb, knowing that double constructions for certain verbs occur already in old texts and sometimes for the same author.

At first, all these verbs are rather low on the scale of transitivity, on the basis for example of the criteria for patient assignment. The evolution could be due simply to an evolution related to the internal economy of the language since the two structures in competition coexist already, or due to contact between the languages by the very fact that the speakers are all bilingual Basque-French, or, the most daring assumption, due to external causes like the evolution of the thought and way of life, in which the role of agent is extended to not very active agents, not controlling the action, and perhaps a conjunction of these factors.